Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Gasteiz



Aurkibidea

Udalerria: Gasteiz

Sarrera



Gasteiz Zadorra ibaiaren arroan dago, Arabako Lautadaren mendebaldean. Arabako hiriburua da, eta baita Euskal Autonomia Erkidegokoa ere, 1980tik, eta Euskal Herriko bigarren hiri jendetsuena bihurtu da. Udalerria 28 auzoz eta 63 herri txikiz dago osatuta. Gasteizko euskalkia XVIII. mendean desagertu zela uste da. Gerraostean Gasteiz ia erabat erdalduna zen, baina azken urteotan euskara izugarri suspertu da, herritarren ahaleginari esker.

Argazkia: Wikipedia.

- **Biztanleak**: 245.036
- **Euskaldunak**: %24,32

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **29**
- Zintak: **31**
- Pasarteak: **516**
- Transkribatutakoak: **2**
- Audioak: **12**
- Bideoak: **503**

Proiektuak

- 101L - Herriz herri
- Bittor Kapanaga, Otxandioko aztia
- Gasteizko Euskararen Ahotsak
- UEU Udako Euskal Unibertsitatea

Hizlariak

Irati Anda Villanueva (1982)



1982an jaio zen Gasteizen. Ama Cantabriako Potes herrikoa du, aita Arabako Markiñakoa. Gasteizko Tokieder ikastolan egin zituen ikasketak, 'Euskaraz Bizi' egitasmoan. Ondoren, Ikasbidea ikastolara joan zen. Kirol Zientziak egin zituen Gasteizen bertan, eta gaur egun Mendi Federazioko langilea da. Bertso-eskolan eman zuen izena 13 urterekin, eta bertsoari heldu dio urte mordoan. Mendizaletasuna eta eskalada ere pasioz bizi ditu. Eskalatzaile moduan ibilbide ederra egin du: hiru aldiz izan da Espainiako eskalada txapelduna, eta beste hirutan Euskadikoa.

Maria Jesus Aranguren Gurrutxaga (1955)



Azpeitiko Aratz-Erreka auzoan jaio zen Maria Jesus. Ama beasaindarra zuen, Matxinbenta auzokoa, eta aita, berriz, azpeitiarra. Lau urterekin herriko eskolara joan zen eta ondoren moja eskola batean egin zituen ikasketak, dena gaztelaniaz. Irakasle lanetan hasi zen Gasteizen, Arabako Foru Aldundiak Txagorritxu auzoan ireki zuen Ikasbidea ikastolan. Behin lanean hasita, Gasteizen gelditzea erabaki zuen. Gau-eskoletan aritu zen, eskolak ematen eta koordinazio lanetan. Udaberria euskaltegiaren sortzaileetako bat izan zen, eta 42 urte egin zituen bertan lanean, erretiroa hartu zuen arte; euskaltegiko zuzendari ere izan zen.

Rikardo Arregi Diaz de Heredia (1958)



Gasteizen jaioa. Psikologia eta Magisteritza ikasi zituen Salamancan, eta hantxe hasi zen euskara ikasten ere, Koldo Mitxelenarekin. Euskal Filologia ikasi zuen gero, Gasteizen. Idazlea da, poeta. Hiru poema liburu argitaratu ditu. "Volgako Batelariak" izeneko literatur-taldeko kidea da. Itzultzailea ere bada. Sindikalgintzan jardun zuen. Azken urteotan euskara irakaslea da, hezkuntza sistema publikoan.

Maria Jesus Arriola Agirre (1952)



1952an jaio zen, Gasteizen. Aita Elgoibarkoa zuen, baina Eibarren lanean ibilitakoa. Ama Berrizkoa zen. Lan kontuengatik Gasteizera joan, eta bertan ezkondu ziren gurasoak. Hiru senidetan zaharrena da Maria Jesus. Sagrado Corazon de Jesus eskolan ikasi zuen, gaztelaniaz. Administrari ikasketak egiteko asmoa zuen, baina Magisteritza egin zuen Gasteizen, Gernikako emakume euskaltzale batek hala gomendatuta. Ikastola klandestinoetan andereño beharrean zeudela, eta euskara ikasten hasi zen. Ikasketetako azken urtean Izaskun Arrueren laguntzailea izan zen, eta ondoren, lau urtez aritu zen han ordezkapen bat egiten. Lanean ari zen bitartean, San Prudentzion euskara eskolak jasotzen zituen. Olabide ikastolan ibili zen 1969-1976 bitartean. Ondoren Duranako Ikasbidea ikastolan plaza lortu, eta 31 urte egin zituen han; zuzendari eta ikasketa-buru ere izan zen. Salburua ikastetxearen sorreraren arduraduna izan zen sei urtez, erretiroa hartu zuen arte.



Iñaki Barona Urbina (1967)

Naroa Cuesta Niso (1985)



Gasteizen jaioa, aita Burgoskoa du eta ama Caceresekoa. Alaba bakarra da Naroa. Tokieder ikastolan egin zituen ikasketak, 12 urte bete zituen arte. Ondoren, Koldo Mitxelena institutura joan zen. 18 urte bete zituenean, Kazetaritza ikasketak egin zituen Leioan. Ikasketa guztiak euskaraz egin zituen, eta familiako lehenengo euskalduna bilakatu zen. GEU elkarteko teknikaria da gaur egun, eta Gasteizko Mintzalaguna proiektuko arduradun gisa ere jardun du.

Pedro Ignacio Elosegi Gonzalez de Gamarra (1960)



Gasteizen jaioa, guraso biak ere gasteiztarrak zituen. Aiton-amonak, ordea, alde batekoak Arabako lautadakoak ziren eta Errioxakoak besteak. Sei senidetan zaharrena da Pedro. 3-10 urte bitartean Izaskun Arrueren etxean ibili zen ikasten, isilpeko ikastolan. Ondoren, Estibalitz kaleko Olabide ikastolara joan zen. Batxilergoa institutuan egin zuen, eta euskara galdu zuen bertan. 16 urte zituela, Olabide ikastolan txistu eskolak ematen hasi zen astean behin, eta modu honetan euskara berreskuratzen ere hasi zen. Medikuntza eta musika ikasketak egin zituen, baita euskal kulturan graduondokoa ere. Olabideko lehendakaria eta batzordeburua izandakoa. Politikaria (EAJ), Arabako Batzar Nagusietako presidentea izan da, baita Gasteizko Udaleko zinegotzi ere. Folklore Akademia zuzendu du 20 urtez.

Aitor Fernandez de Ortega Larrusea (1973)



1973an jaio zen Aitor, Gasteizen. Mendiguren herrian bizi da gaur egun. Ama mundakarra du, baina lan kontuak zirela eta, Gasteizera joan zen bizitzera. Aita, berriz, Mendiguren herrikoa du. Hasiera batean A ereduan ikasi zuen Aitorrek, baina gero Ikasbidea ikastolara joan zen. Hizkuntza Eskola Ofizialean euskara ikasten ere ibili zen. Ingeles Filologia egin zuen Gasteizen. Gaur egun, ordea, IKA euskaltegian dabil euskara irakasten.

Kike Fernandez de Pinedo Alvarez de Arkaia (1961)



Gasteizen jaioa. 15 urterekin gau eskolan hasi zen euskara ikasten. Euskal Filologia ikasi zuen. AEKn euskara irakasle izan zen Arabako Errioxan. Gasteizen ere euskara irakasle izan da urte askoan. Gasteizko euskararen historia ere ikertu du. Azkenaldian politikan ere badabil: elkarrizketatu genuenean EH Bilduko bozeramailea zen Gasteizko Udalean.

Peli Fernandez de Romarategi Lanas (1922)



Gasteizko Errementari kalean jaio zen Peli 1922an. Aita Otazu herrikoa zuen, eta ama Apellanizkoa. Bost senide ziren. Aita, abertzalea oso, ebanista zen eta Bonilla etxean egiten zuen lan. Gerraurrean Postas kalean Pilar Landaburuk zuen ikastolara joan zen Peli; ondoren Zapateria kaleko Uralde etxera. EAJ-k sortutako Gaztetxu mugimenduan parte hartu zuen, ezpata-dantzari bezala (1934ko Aberri Egunean, besteak beste). Ebanista izateko ikasi zuen gero, Agirretxea lantegian. Gerraostean, propaganda klandestinoa banatzeagatik eta ikurrinak ipintzeagatik kartzelaratu zuten, beste bost lagunekin batera. Kartzelan 'Umandi' (Andoni Urrestarazu) ezagutu zuen, bere euskara irakasle izan zena. 1955ean Ekuadorrera joan zen misiolari, eta 33 urte egin zituen han, mural, mosaiko eta beirateak egiten. Bueltan Urkiolanbizi izan zen Peli, eta berak egindakoak dira bertako beirate batzuk. Gasteizko apaizetxe batean bizi zen elkarrizketa egin genionean.

Maritxu Goikoetxea Gonzalez de Lopidana (1948)

Gasteizen jaioa, gurasoak bertakoak zituen. Gaztelaniaz ikasi zuen umetatik. Musika ikasketak egin zituen. Euskara ikasten hasi zen, Peli Presarekin. 1965ean Olabide ikastolan hasi zen irakasle gisa, eta hantxe ibili zen erretiratu arte; Alazne Arrue andereñoak jarri zuen abian ikastola hori, 60ko hamarkadaren hasieran. Euskararen bilakaeraren lekuko izan da Maritxu. Manuel Iradier taldekoa zen. Bergaran bizi da.

Karmele Jaio Eiguren (1970)



Gasteizen jaioa. Gurasoak Lekeitiokoak ditu, eta etxean jaso zuen euskara. Olabide ikastolan ibili zen. Informazio zientzietan lizentziatu zen, EHUn. Hainbat komunikabidetan eta komunikazio bulegotan egin du lana. Idazlea da. Hainbat liburu argitaratu ditu 2004tik hona, ipuin bildumak zein eleberriak. *Amaren eskuak* eleberria zinemara eraman zuten 2013an. Elkarrizketatu genuenean Emakundeko komunikazio burua zen. Besteak beste euskarari, literaturari eta genero ikuspegiari buruz hitz egin genuen Jaiorekin.

Megi Khaburdzania (1970)



Georgiarra da, musikaria. 23 urte daramatza Gasteizen. Musikak ekarri zuen Gasteizera: emanaldi bat izan zuten. Gasteiz gustatu egin zitzaion, eta bi lagunekin bueltatu zen. Hirurak bertan geratu ziren bizitzen. IKA euskaltegian ikasi du euskara. Elkarrizketa egin genionean 12. urratsean zegoen.

Garikoitz Knörr de Santiago



Filologo, itzultzaile eta irakasle gasteiztarra, Henrike Knörr hizkuntzalariaren semea. Valentzian bizi da eta euskara irakaslea da bertan. Ingelesek euskara ikasteko gida baten egilea da.

Iñaki Lazkano Lizundia (1968)



Eibarren jaioa. Ama Larruskaingoa zuen eta aita zarauztarra. Etxean jaso zuen euskara, eta Eibarko ikastolan ibili zen. 1986an Gasteizera joan zen Euskal Filologia ikastera, eta bertan bizi da. 1995ean Parral taberna hartu zuen, beste kide batzuekin batera; erreferentziazko tokia bilakatu zen Gasteizen. Hainbat lanetan jardun du: euskara irakasle Ardatz kultur elkartean, Geu euskara elkarteko euskara teknikari, Bartzelonako euskal etxeko kultur teknikari... Elkarrizketa egin genionean Oihaneder euskara etxeko teknikaria zen. Lazarraga kultur taldeko kidea da.

Iñaki Martinez de Luna Perez de Arriba (1950)



Gasteizen jaioa. 16 urterekin erabaki zuen euskara ikastea. 18rekin Lazkaora joan zen, lanera eta euskara ikastera. Soziologian Doktorea (Deustuko Unibertsitatean). Hizkuntzaren Soziologian aditua, bereziki hizkuntza gutxituen inguruan. Soziolinguistika Klusterraren lehendakari ohia. HIZNET Hizkuntza Plangintza Graduondoko eta LINGUANET ikastaroaren zuzendari. Eusko Ikaskuntzako kidea. Euskal Herriko Unibertsitatean soziologia irakasle da gaur egun.

Kepa Mendia Landa (1952)



1952. urtean jaio zen Gasteizen. Bi senidetan zaharrena da Kepa. Guraso biak gasteiztarrak zituen, baina aitaren ama gipuzkoarra zen, euskalduna. Familiak Mendia optika ireki zuen 1856an La Pueblan, eta Gasteizera mugitu zuten 1895an. Optika ikasketak egin zituen Kepak Madrilen 1969an, baita Ekonomia ikasketak ere. Madrilen euskarara hurbildu zen, eta ikastea erabaki zuen. Ondoren, Gasteizera itzuli, eta arratsetan euskara ikasten aritu zen Olabide ikastolan. Gasteizko AEKren sorreran parte hartu zuen 1977an, eta 1978an Euskal Filologia egiten hasi zen. Keparen aita musikazale eta euskaltzale amorratua zen; 'Euskal Jaia' irratsaioan euskal musika ipintzen aritu zen 1970-90 bitartean, eta optikan euskal musikako diskoak jartzen zituen salgai. Optikan euskarazko publizitatea egiten ere hasi zen. Kepak bide horretatik segitu zuen, optikan lanean hasi zenean: euskarazko publizitatea egiten.

Iñaki Ortiz de Villalba Paiueta (1971)



Gasteizen jaioa. Ikastolan ikasi zuen, baina Arantzazun hasi ei zen euskara maitatzen: hiru urte egin zituen frantziskotarren ikastetxean, besteak beste Bitoriano Gandiagarekin. Musikazaletasuna ere erneta zuen ordurako: abesbatzan kantatzen zuen. Gasteizera bueltatu zenean, Udaberria euskaltegira joan zen euskara hobetzera. Lan Harremanak eta Gizarte Gradiatua ikasi zuen EHUn, Leioan. LAB sindikatuan egon zen lanean bost urtez. Musikarekin bateragarria ez zelako utzi zuen. Betagarri musika taldeko abeslaria da. Euskaraz kantatzen hasi zen lehenengotakoa izan zen Araban; Betagarri taldeak 20 urte baino gehiago daramatza oholtza gainean. Euskara irakaslea da Udaberria euskaltegian.



Ane Pedruzo Redondo (1985)

Oihane Perea Perez de Mendiola (1977)



Gasteizen jaio zen Oihane 1977an. Ama gasteiztarra du, aita Algortakoa. Euskaltegian ikasi zuten euskara gurasoek, ondoren transmititzeko. Tokieder ikastolan eta Arantzabelan ikasi zuen. Ondoren, batxillergoa Koldo Mitxelena institutuan egin zuen. 'Euskaldun zahar in vitro' dela dio, umetan emakume euskaldun batek zaindu zuelako, eta euskara transmititu ziolako. Majisteritza ikasi zuen Gasteizen; ikasketa horiek euskaraz egin zituen lehen belaunaldikoa izan zen. Bertso munduan ezaguna da Oihane: 12 urterekin bertso-eskolan izena eman, eta ordutik bertsotan darrai. Hamasei urterekin bertso-eskolako irakasle lanetan hasi zen, gaur egun arte. Gasteizen hasi, eta Araban bertso-eskolak zabaltzen lan eskerga egin du. Euskal Herriko Eskolartekoan parte hartzen hasi zen, eta San Prudentzio Sariketa hamaika aldiz irabazi du. Lau aldiz izan da Arabako txapeldun.



Olatz Perez de Viñaspre Garralda (1987)

Ingeniaritza informatikoan lizentziatua eta UEUko Informatika saileko bazkidea da.

Manuel Maria Ruiz Urrestarazu (1941)




Donostiako Aldamar kalean jaio zen, baina jaio eta hilabetera Iruñeara joan zen gurasoekin bizitzera. Guraso biak donostiarrak zituen, ama Aietekoa. Hamasei urterekin Zaragozara joan zen ikastera, eta ondoren Madrilera. Mendi Ingeniaritza ikasi zuen. Madrilen bizi zela hasi zen euskara ikasten, Andoni Urrestarazu "Umandi"-ren gramatika liburuarekin. Toponimian aditua, pasioz bizi du, batez ere Gasteizko toponimia txikia. 1969an euskaltzain urgazle izendatu zuten, eta 2014an euskaltzain ohorezko. Hainbat tokitan ibili zen lanean (Arrasaten, Durangon, Bilbon). 1973an Arabako diputazioko Mendi zerbitzuko langile moduan hasi zen, eta horretan aritu zen jubilatu zen arte. Gasteizen bizi da geroztik. Hiru alaba ditu.

Ruben Sanchez Bakaikoa (1975)

Zaragozan jaioa. 3-4 urte zituenean bere familia Gasteizera joan zen bizitzera. Apaiz ikastetxe batean ikasi zuen, erdaraz. Ondoren Oñatira joan zen Enpresaritza egitera, ETEOra; hantxe hasi zen euskara ikasten, bere kabuz (Azpeitiko pisukide batekin, besteak beste). Gero Euskal Filologia ikasi zuen, Gasteizen. Orduantxe hasi zen Bertso Eskolan ere. Bertsolaria da, eta bertsoarekin lotutako tailerrak ematen ditu. Hala Bedi irratian ibilia da. Ramon-Bajo ikastetxeko gurasoa da.

Jordi Serra Geli (1976)



Gironan jaioa. Urte mordoxka daramatza Euskal Herrian. Euskara ikastera etorri zen, Bilbora, 1995. urtean. Batua eta bizkaiera hitz egiten ditu. 2001ean Gasteizera joan zen bizitzera, eta euskara ikasten jarraitu zuen. Tabernari ibili zen pare bat urtez, eta azken urteotan IKA eusklategiko irakaslea da.

Mikel Urdangarin Abasolo (1971)



Zornotzan jaioa. Ikastolan ikasi zuen. Kantautorea da. Bertsolari moduan hasi zen, baina bere ametsa abeslaria izatea zen: isilpean ikasi zuen gitarra jotzen eta halaxe atera zuen bere lehen diskoa ere, 1997an: *Haitzetan*. Handik hona lan mordoa plazaratu ditu, gehienak arrakastatsuak. Urdangarinek 20 urte baino gehiago daramatza Gasteizen bizitzen. Kupela izeneko taberna dauka bertan. Musikari eta tabernari lana uztartzen ditu.

Blanca Urgell Lazaro (1962)



Gasteizen jaio zen, etxean. Aita katalana du, Tarragonakoa, eta ama Errioxakoa, Harokoa. Moja eskola batean egin zituen ikasketak, gaztelaniaz. Izeba baten izaera abertzaleak bultzatuta, euskararen mundura hurbildu, eta familiako lehen kide euskalduna bilakatu zen. Euskal Filologia ikasi zuen, 2. promozioan; Koldo Mitxelenaren ikasleetako bat izan zen. Behin ikasketak bukatuta, Añibarrori buruzko tesina egin zuen. Orotariko Euskal Hiztegian lanean eman zituen bederatzi urte. 2002. urtetik, berriz, EHUn Euskal Ikasketetako irakaslea da; 'Euskararen historia' irakasten du. 2009-2012 urte bitartean Jaurlaritzako Kultura Sailburu izan zen. *Monumenta Lingua Vasconum* ikerketa taldeko kidea. *Ikergazte* Kongresuko batzordekidea. 2015. urtean Euskaltzain urgazle izendatu zuten.

Josune Velez de Mendizabal Fernandez de Garaialde (1977)



Gasteizen jaioa. Aita Lopidanakoa du, ama Faltzes herrikoa (Nafarroa). Umandi ikastolako ikasle izan zen lehenengo, eta Olabidekoa gero. Kazetaritza ikasketak egin zituen Leioan, eta kazetari lanetan jardun zuen hainbat urtez. Gara egunkarian, Geu aldizkarian eta EITBn. Musikako espezialitateko Majisteritza egin zuen ondoren. Irakasle lanetan aritu zen aldi batez, eta azken urteotan kulturaren arloan bizi eta mugitu da. Gasteizen TAE eskolan antzerki-ikasketak egin zituen eta Pez Limbo antzerki taldeko kide bihurtu zen. Baratza aretoko kudeaketan zebilen elkarrizketa egin genionean.

Patxi Villamor Fernandez (1955)



Kantautore gasteiztarra. 70eko hamarkadan euskaraz abesten zutenetako bat zen Villamor, lehenengotarikoa Araban. Bittor Kapanagarekin harremana izan zuen, eta hari buruzko dokumentalerako egin zitzaion elkarrizketa labur hau.

Josu Zabala Ajuriagerra (1954)



Otxandioko Mekoleta auzoan jaioa, guraso biak Otxandiokoak zituen. Bost senide ziren (hiru neska eta bi mutil). Josuk -Jesus Maria, nortasun agirian- 2 urte zituenean familia Gasteizera joan zen bizitzera. Esnea partitzeko negozioa jarri zuten bertan. San Jose fraide-ikastetxean (orain San Viator) ikasi zuen 17 urtera arte. Ondoren Magisteritza ikasketak egin zituen, eta irakasle gisa jardun zuen hainbat tokitan. 11 urterekin trikitia ikasten hasi zen, eta gazte-gaztetatik murgildu zen Gasteizko euskal giroan eta musika munduan. Baita militantzia politikoan ere: LKI taldean ibili zen. Baxu jotzailea eta konpositorea, Hertzainak musika taldeko sortzaileetako bat izan zen. Taldearen sorreraren eta ibilbidearen berri eman zigun Gasteizko Ahotsak proiekturako egin genion elkarrizketan. Josu ez da gasteiztarra sentitzen, Mekoletakoa baizik, eta bertan bizi da.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Euskara

1.1. Familiak euskararekin zeukan harremana

- **Hizlaria(k)**: Arregi Diaz de Heredia, Rikardo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: GAS-002/002
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:00:46. **Bukatu**: 00:02:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararekiko sentimendua
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Amonak ba omen zekien zerbait euskaraz baina berak ez zuen ezagutu. 60. eta 70. hamarkadetan Gipuzkoa eta Bizkaitik jende asko joaten zen Dulantzira uda pasatzera. Bere izeba-osabarentzat haiek "euskaldun-euskaldunak" omen ziren.

Transkripzioa
- Eta zure familian zer harreman zuten euskararekin? Zure gurasoek, aiton-amonek...?
- Amak kontatzen zidan bere amak, nere amonak, bazekiela zerbait euskaraz, baiña nik ez nuen ezagutzen amaren... Bueno, amaren ama ezagutu nuen, baiño oso zaharra zen ya eta burua galduta eta horrela. Eta gero hemen, Arabako herrietan, ba, beti izan dituzte hitz batzuk euskarazkoak, nahiz eta batzutan euskara zela, hori euskara zela, jakin ez. Eta Dulantzin eta nire... bueno, bertako izeba-osabak eta ez dakit zer bazekiten, adibidez, badago leku bat Sorgiñerreka deitzen dena Dulantzin. Bazekiten hori zer esan nahi zuen gaztelaniaz eta gauza hoiei buruz zerbait zekiten. Baiña zan gauza bat oso... Dulantzira uste dut hirurogei hamarkada, hirurogeita hamar hamarkadan, Gipuzkoako ta Bizkaiko hainbat familia zetozen, udak pasatzera, klimaren zera horrekin, ez? Ba klima lehorra eta ez dakit ze, batez ere seme-alaba txiki gaixoak zituztenak. Eta Dulantzin hoiek ziren “vascos-vascos”; gu giñen “vascos” eta hoiek “vascos-vascos”. Eta, orduan, ba, niri txikitan hori atentzioa deitzen zidan zera hori, ez? Baiña... Bai, gero nire amaren familian batzuk ziren Bizkai aldekoak eta euskaraz zekiten eta abesti batzuk zekiten euskaraz eta... Bueno, gauza hori, bai.

1.2. Gasteizko euskararen ezaugarriak

- **Hizlaria(k)**: Arregi Diaz de Heredia, Rikardo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: GAS-002/030
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:53:10. **Bukatu**: 00:55:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
  Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Gasteizen euskalki ezberdinetako jendea elkartzen denean, badago elkar ulertzeko esfortzu bat. Debagoienako euskara entzutea adibidez ohikoa da. Nahiz eta euskalki propiorik ez eduki, gasteiztarrei inguruko euskalkiekin harremana errazagoa egiten zaiela uste du.

Transkripzioa
-Gasteizko euskara: ezaugarriak...
-Ez dakit nik; ez dut uste... nik uste dut jende gaztearen artean izango da beste hiri askotan egiten den bezala, ez? "Da rollo bat" eta halako esapideak esaten dituztenak. Ez dakit... nik uste dut hemen jende asko dagoela kanpotik etorria, baina bizi dira hemen... igual daramate hemen hogei-hogeita hamar urte... Nik uste dut, klaro, Tolosako bat, Lesakako bat edo, ez dakit, Etxarriko bat eta Oñatiko bat elkartzen direnean, gogorregia da bakoitzak bere euskalkiari eustea, ez? Orduan, badago zea bat, nik uste dut, elkar ulertzeko egiten dan esfortzu bat.
-Baturako joera bat?
-Agian bai. Jende askori uste dut hori kostatzen zaiola edo harritu egiten dala, ez? Zea hoiekin. Edo... Ez dakit. Baina adibidez Debagoienako euskara hemen entzutea ez da batere arraroa; oso komuna dela. Igual hemengo jendeak ez du euskalki bat egingo, baina nik uste dut igual kapazagoa dela beste euskalkiak ulertzeko, eskandalu handirik gabe. Nik entzuten dut "gustatzen jata" hemen eta, ez dakit, ez diot garrantzirik ematen. Badakit zer den; nik ez dut horrela hitz egingo, edo ez dut horrela hitz egiten, baina badakit zer esaten ari dan. Ez da holan gauza arraro bat-edo; ez dakit nik, ez dakit jende gaztearen artean nola hartuko duten hori, edo beste batzuek nola hartuko duten hori. Ez dakit.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Kantuen letrak hobetzera Bittorrengana (GAS-001/002)

Euskara Bittor Kapanagarentzat bere nobietariko bat zen. Abertzalea zen, baina garbi zuen bere ekarpena euskararen bidetik eroan behar zuela. Gaztetan, sarri joaten ziren Gasteiztik Otxandiora, eta orduan ezagutu zuen Bittor. Kantak sortzen zituenean, Bittorrengana jotzen zuten euskara eta abar hobetzeko. Letrak politizatuak zeuden orduan, eta Bittor horrekin ados zen. Horretaz gain, bere grinak eta zaletasunak azaltzen zizkion Bittorrek. Inportantzia handia ematen zion mendebaldeko euskarari.

2. Bittor Kapanaga: pertsona bakartia eta hausnarkaria (GAS-001/003)

Pertsona bakartia eta hausnarkaria zen. Maisua. Asteko egunekin ere sarri aritzen zen. Txundituta uzten zuen. Ezagutzen duzuna maitatzen duzu. Oletako baserrira joan, eta supazter ondoan eseri eta berriketan eta kantuak sortzen ematen zuten denbora. Inspirazio handia zuen. Berehala sortzen zituen kantak. Geroago ere joaten zitzaion Otxandioko etxera.

3. Bittor Kapanaga bihotzean (GAS-001/004)

Azken harremanak Otxandioko zaharretxean izan zituzten. Gainbehera zetorren ordurako. Bittor beste ezer baino gehiago, pertsona bezala maite du. Bittor pertsonak askoz ere inportantzia handiagoa du haren ekarpenak baino. Abertzalea da lurra maite duena, eta zentzu horretan bazen abertzalea. Bittor gure bihotzean egongo da betirako.

4. Euskara nola ikasi zuen (GAS-002/003)

16 urterekin euskara ikasten hasi zen, Salamancako unibertsitatean zegoela. Euskaldun asko zegoen 60. hamarkadan Salamancan. Gero AEK-n egon zen pare bat uda eta berehala ikasi zuen.

5. Euskararekin lehen kontaktuak umetan (GAS-002/004)

Euskarari buruzko txikitako oroitzapenak: Uda pasatzera Arabako Errioxara joaten ziren familia euskaldunen seme-alabekin euskaraz egiten zuen. Aitak kontatzen zion aitonaren baserrira Oñatiko gazteak joaten zirela gaztelera ikastera. Uda pare bat Donostian igaro zituen senide batzuen etxean eta haiekin ere zerbait egiten zuen euskaraz.

6. Euskara zer den beretzat (GAS-002/005)

Gabriel Arestik zioen berak euskara ez zuela "maite", "behar" zuela. Rikardok antzera pentsatzen du. Familian entzuten zituen istorioek sortu zioten euskararekiko kuriositatea eta txikitatik ulertu eta ikasi nahi izan zuen.

7. Lehen Gasteizen entzuten zen euskara, Debagoienekoa (GAS-002/007)

Gaztetako kuadrilla erdia Arrasate ingurukoa zuen, euskalduna, eta asteburu askotan joaten ziren hara. Bera euskara ikasten ari zen orduan. Duela 30-40 urte Gasteizen euskara entzuten zenean batez ere Debagoienatik lanera, erosketak egitera... joandako jendea izaten zen.

8. Gaur egungo euskararen egoera Gasteizen (GAS-002/009)

Jende askok hitz egiten du euskara Gasteizen gaur egun, baina batzuetan ez da ikusten. Gertatu izan zaio norbaitekin beti gazteleraz jardutea eta egun batean hark euskaraz badakiela konturatzea. Batzuetan ez dakizu nork dakien euskaraz eta nork ez, jende asko eta ezberdina bizi da Gasteizen eta sarritan aurreiritziak ere izaten dira. Kanpotik etorritako euskaldun asko ere badago eta euskalki desberdinak entzuten dira.

9. Hizkuntzarekin ezustekoak Gasteiztik kanpo (GAS-002/010)

Gasteiztik kanpo jende guztiak euskaraz jakingo duela pentsatzen du eta ezustekoak hartu izan ditu. Donostiako taberna bateko anekdota.

10. Gasteiztarra eta euskalduna: "landare arraroa" (GAS-002/011)

Batzuetan jendea harritu egiten da gasteiztarra dela jakitean. Batez ere Gasteiztik kanpo gertatzen zaio, gasteiztarra eta euskalduna dela esatean, "azterketa botaniko geologikoa" egiten diotela dio; ea "landare arraro" hori nondik datorren asmatzen saiatzen direla.

11. Euskaldunekiko aurreiritziak (GAS-002/013)

Gasteizen 80. hamarkadan euskara leku jakin batzuetara mugatzen zen, alde zaharrera batez ere. Beste zonalde batzuetan euskara baserriarekin lotzen zuten. Gaur egun beste aurreiritzi batzuk daude: nazionalismoarekin, abertzaletasunarekin, terrorismoarekin... lotzen da euskara.

12. Atzerritarrek euskara ikasteko gogoa (GAS-002/014)

Eskolen mapa asko aldatu da. Ikastola gehienak Arabako Aldundiak sortu zituen. Eskola publikoetan B eta D ereduek izugarrizko gorakada izan dute. Rikardo orain helduen euskara irakaslea da eta atzerritar asko ikusten ditu euskara ikasi nahian, seme-alabek hitz egiten dutelako.

13. Gasteizen euskaraz bizi al daiteke? (GAS-002/016)

Faktore askoren arabera dago euskaraz bizi ahal izatea: lanbidea, lagunak, giroa... Baina askotan norberaren esku dago: zein egunkari irakurtzen duzun, zein telebista kate ikusi... Lehen askotan gertatzen zen administrazioarekin hizkuntza aldetik arazoak izatea.

14. Gasteizko kultur giro erakargarria (GAS-002/018)

Euskal kulturako jendea erakarri izan du Gasteizek. Euskal Filologiako fakultatea bertan egoteak ere lagundu du. 80. hamarkadan herri txikietako jende asko erakarri zuen Gasteizko giroak. Izen batzuk aipatzen ditu.

15. Euskaraz idazteko erabakia (GAS-002/020)

Gazteleraz oso gutxi idatzi du. Aresti, Sarrionandia... asko gustatzen zitzaizkion. 1993an atera zuen lehen liburua, denbora asko eman zuen nola egin nahi zuen pentsatzen.

16. Ikasketak eta lehen lanpostuak (GAS-002/022)

Euskara irakaslea da gaur egun. Salamancan psikologia eta magisteritza ikasi zuen. Gasteizera bueltatutakoan Euskal Filologia ikasi zuen. Haur hezkuntzan irakasle gisa hasi zenean oso arraroa zen gizon bat 4-5 urteko umeekin egotea.

17. Lehenengo euskara irakasleen zailtasunak (GAS-002/023)

Euskara irakaslea da gaur egun. 80. hamarkadan eskola publikoetan lehen euskara irakasleak sartu zirenean aurreiritzi asko jasan behar izan zituzten. Euskarazko material askorik ere ez zegoen eta ez ziren urte errazak izan, baina lan ona egin zutela uste du.

18. Beste esparru batzuk bereganatzeko ditu oraindik euskarak (GAS-002/024)

Garai batean euskararen etorkizuna irakaskuntzan zegoela pentsatu zen eta hor inbertitu zen ahalegin handiena. Baina bere ustez ez da landu beharreko esparru bakarra. Osakidetzan, adibidez, gaur egun oraindik arazoak daude euskararekin eta harrigarria iruditzen zaio. Neska-mutilek askotan eskolatik kanpo ez dute erabiltzen. "Garai berrietako latina" bihurtzen ari dela ematen du batzuetan.

19. Euskarazko ekitaldiak bilatzeak norberaren jarrera aktiboa eskatzen du (GAS-002/025)

Gauza asko antolatzen dira gaur egun euskaraz, baina bila joan behar duzu, jarrera aktiboa izan behar duzu. Eta hori batzuetan nekagarria izan daiteke.

20. Euskara ikasteko erraztasunik ez (GAS-002/027)

Ez du uste euskara ikasi nahi duen jendearentzat erraztasun handirik dagoenik. Seme-alabek eskolan ikasten dutelako jende heldu askok euskararekiko interesa dauka baina ez zaie laguntza askorik ematen. Euskara ikastea garestia izatea oso gauza harrigarria da.

21. Adierazpen publikoetan euskararen kalitateak kezkatzen du (GAS-002/031)

Adierazpen publikoetan euskararen kalitateak kezkatzen du, adierazpen pribatuetan ez. Ekitaldi publikoetan euskara desegokia erabiltzeak haserretu egiten du. Harreman ez-formaletan toleranteagoak izan beharko genuke.

22. Euskara eta azentu bitxiak (GAS-002/032)

Kordobako lagun batek iparraldean ikasi zuen euskara eta bitxia da bera entzutea. Euskaraz Sevillako azentuarekin hitz egiten duen beste bat ere ezagutzen du. Horrek hizkuntzari bizitasun bat ematen dio.

23. Euskal kulturaren periferian (GAS-002/033)

Idazle moduan euskal kulturaren periferian sentitzen da pixka bat. Batzuetan barre egiten dute horren kontura.

24. Gasteiz eta Arabari buruzko aurreiritziak (GAS-002/034)

Gasteiz eta Arabari buruz (eta baita Nafarroa eta Iparraldeari buruz ere) aurreiritzi asko dagoela uste du. Badirudi garrantzitsuena ez dela zer zaren, baizik eta zer ematen duzun. "Ez duzu euskalduna ematen" esan izan diote. Periferian egotearen abantailak.

25. Euskararen inguruko anekdotak (GAS-002/035)

Euskararen inguruko anekdota asko gertatu izan zaizkio. Askotan atzerritartzat hartzen dute.

26. Etxean gaztelera zen nagusi (GAS-003/002)

Familiaren jatorria. Etxean gaztelera zen nagusi, baina hitz batzuk euskaraz erabiltzen ziren.

27. Euskararen "aurkikuntza" (GAS-003/004)

14-15 urterekin egin zuen euskararen "aurkikuntza". Diktaduraren bukaerarekin kointziditu zuen eta orduan konturatu zen Euskal Herriko historiaren parte bat ezkutatu zitzaigula. Gau eskolan apuntatu zen euskara ikasteko. 17 urterekin gai zen euskaraz egiteko. Momentu hunkigarria izan zen "lozorroan" zegoen amona euskaldunarekin euskaraz aritzea. Euskal Filologia ikasi zuen gero.

28. Zer suposatzen duen euskarak beretzat (GAS-003/006)

Bere bizitza gaztetatik oso lotua egon da euskarari: lanbidea euskararekin lotua izan du; euskararen aldeko hainbat mugimendutan parte hartu du... Familian euskarak izan duen eraldaketa: bere gurasoak erdaldunak, bera euskaldundua eta bere seme-alabak jaiotzetik euskaldunak. Araban euskara berreskuratzearen "ametsa" motor modukoa izan da beti beretzat.

29. Harremanetarako erabilitako hizkuntza (GAS-003/007)

Aldaketa bat egon da bere baitan. Gaztetan ez zuen euskara guztiz menperatzen eta gaztelerara jotzen zuen. Konturatu gabe hori aldatzen joan da eta harreman batzuetan erosoago sentitzen da euskaraz.

30. Gasteizko euskararen egoera gaur egun (GAS-003/008)

Frankismo garaian euskaldun oso gutxi zegoen Gasteizen. Seguru asko Gasteizen eta Araban egon da bilakaera esanguratsuena. Gasteizen "Oihaneder Euskararen Etxea" sortu da, Alea aldizkaria, mintzalagun taldeek indar handia dute... Hezkuntzak izan duen garrantzia. Lapueblako adibidea.

31. Euskararen erabileran oraindik gainditu beharreko oztopoak daude (GAS-003/009)

Euskararen erabilerari garrantzia gehiago eman behar zaio. Bide berriak jorratu behar dira, espazio berriak irabazi, batez ere gazteekin. Eskoletan dagoen ezagutza maila ere ez da berdina. Oztopo garrantzitsuak ikusten ditu oraindik eta aldaketak oso poliki emango direla uste du.

32. Umea zen garaian euskara "ez zen existitzen" (GAS-003/010)

Umea zenean euskara "ez zen existitzen". Amonaren etxean tarteka zerbait entzuten zuen. Franco hil ondoren aldaketa handia eman zen.

33. Euskal kulturaren bilakaera Gasteizen (GAS-003/011)

Gaztetan irratian entzun zituen lehen euskal kantak. Lehen euskal diskoak ere orduan hasi ziren ateratzen. 80. hamarkadan euskal kulturaren gorakada izan zen Gasteizen. Hertzainak musika taldearen sorrerak, adibidez, gazteak euskarara hurbildu zituen. Politika aldetik ere badirudi gainditu dela euskararekiko kontrako jarrera.

34. Euskararen kontrako jarrerak (GAS-003/012)

Euskararen transmisioa eten egin zen Araba guztian eta memoria historikoan ezabatuta geratu zen gainera. Jende askok ukatu egiten zuen han euskaraz hitz egiten zenik. 80. hamarkadan euskara eta Euskal Herriaren kontra sortutako mugimendu batzuk gogoan ditu.

35. Gasteizen euskaraz bizi al daiteke? (GAS-003/014)

Gaur egun Gasteizen jende asko dago harreman gehienak euskaraz egiten dituena. Alde zaharrean, bera bizi den tokian, dudarik gabe bizi daiteke euskaraz. Gazte eta umeen artean ere gero eta ezagutza handiagoa dago.

36. Euskara Gasteizko aisialdian (GAS-003/015)

Aisialdian, kirol partiduetan adibidez, gaztelera da nagusi. Eskolan ahozko hizkuntza ez dela behar beste lantzen uste du. Aisialdian hau jorratzea ezinbestekoa dela deritzo. Gazteei hizkuntza informaleko ereduak falta zaizkie.

37. Gasteizen euskara bultzatzeko mugimenduak (GAS-003/017)

AEK-k 80. hamarkadan indar handia izan zuen. Euskara elkarteek ere zeresana izan dute: Euskal Herrian Euskaraz, Bagare Euskal Txokoa, Euskharan Kultur

Elkartea, GEU Euskara Elkartea... Alea aldizkaria aipatzen du. Mintzalagun taldeak ere bizi-bizi daude Gasteizen. Euskararen Etxeak ere paper garrantzitsua egin du.

38. Araban XVII. mendean euskara hitz egiten zela frogatzen duen dokumentu baten aurkikuntza (GAS-003/020)

Euskarari buruzko ikerketa bat egiten ari zirela, 11 sorgin arabarri egindako auziari buruzko dokumentu bat aurkitu zuten, 1611koa. Badirudi emakume haiek itzultzailea behar izan zutela gazteleraz ez zekitelako. Hor ikusten da garai hartan Araban euskara nagusi zela.

39. Gasteiztarra eta euskalduna (GAS-003/021)

Lehen askotan jendea harritu egiten zen gasteiztarra eta euskalduna dela jakitean. Azken urteetan pentsaera hori gainditu dela uste du. Ez zaio gustatzen ez biktima ez heroi papera izatea.

40. Hizkuntza bat ikastean, mundu berri bat ezagutzen duzu (GAS-003/023)

Gasteizen bizitzeko gaztelera nahikoa da izatez. Baina hizkuntza bat ikasten duzunean harekin lotutako mundu berri bat ezagutzen duzu (musika, literatura...). Hori da euskararen erronka: erakargarria izatea jende berriarentzat.

41. Iragana ezagutu eta etorkizunera begiratu (GAS-003/025)

Historia ezagutzea garrantzitsua da, euskara zergatik eta nola galdu den jakiteko, eta berreskuratzeko motor kolektibo bat martxan jartzeko. Baina hori bezain garrantzitsua da etorkizunera begiratzea eta hizkuntza erakargarri eta modernoa bihurtzea.

42. Erabilpena, kalitatea baino garrantzitsuagoa (GAS-003/026)

Hizkuntza bat berreskuratzen ari zarenean, kalitatea ordaindu beharreko prezioa da. Denborarekin lortuko du kalitatea, garrantzitsuena erabiltzea da. Euskara bizirik badago, neurri handi batean, garai berrietara egokitzen jakin duelako da.

43. Hezkuntza sisteman euskara sozializatzeko pausoak eman behar dira (GAS-003/028)

AEK-ko irakaslea izan zenean garrantzia handia zeukan erabilerak. Klasea amaitu eta gero zerbait hartzera joaten ziren. Ibilaldiak edo udalekuak ere garrantzitsuak ziren. Hezkuntza sisteman ere euskara sozializatzeko pausoak eman behar direla uste du. Irakasle ikuspuntutik hizkuntzaren arauak ondo ikasi behar direla uste du, baina horrekin batera, ahozko hizkuntza erabiltzeko tresnak ere landu behar dira.

44. Gasteizko Udalean izandako esperientzia (GAS-003/030)

EH Bilduko bozeramailea da Gasteizko Udalean. Nahiz eta azalpenak euskaraz eman, komunikabide gehienek gazteleraz publikatzen dituzte. Hala ere, gauza batzuk lortu dira. Beste talde batzuk lehen baino gehiago erabiltzen dute. Euskararen Etxea ere alderdi guztien adostasunarekin lortu da.

45. Euskara ikastea garestia da (GAS-003/032)

Hizkuntza Eskola dohainik da, jende asko matrikulatzen da eta beste asko kanpoan gelditzen dira. Edozein herritarrek izan beharko luke ikasteko eskubidea.

46. Bilbora euskara ikastera (GAS-004/002)

Argi zeukan Filologia ikasketak egin nahi zituela eta unibertsitatera sartu aurretik euskara ikastea erabaki zuen. Euskaltegi batzuetara deitu eta uda Bilbon pasatzeko modua lortu zuen.

47. Katalunian ikasketak amaitu eta Euskal Herrira bizitzera (GAS-004/003)

Euskara ikasteko udan Gironatik Euskal Herrira etortzen zen eta gero Kataluniara bueltatzen zen Filologia ikasketekin jarraitzera. Joan-etorrian ibili zen 4-5 urtez. Karrera amaitutakoan erabaki zuen Euskal Herrira bizitzera etortzea.

48. Lotsa gainditu eta euskara erabiltzeko ahalegina (GAS-004/004)

Hasieratik egin zuen ahalegina euskara erabiltzeko, nahiz eta guztiz ondo ez jakin. Zekiena egiten zuen, eta ez zekiena, galdetu. Lotsa gainditzea lortu zuen.

49. Euskara batua eta bizkaiera ikasi zituen (GAS-004/005)

Uda partean euskara ikastera etortzen zen Bizkaira. Euskaltegian batua ikasi zuen eta lagunekin berriz euskalkia.

50. Gasteiz aukeratu zuen bizitoki (GAS-004/006)

Filologia ikasketak jarraitu eta doktoretza egiteko asmoz etorri zen Gasteizera. Tabernari lanetan ibili zen pare bat urtez eta lankideekin euskaraz egiteko aukera izaten zuen.

51. Euskaltegiko irakasle 2003tik (GAS-004/007)

Gasteizko pisu-kide bat euskaltegiko irakaslea zen eta haren gomendioari jarraituz, euskaltegian lana lortzen saiatu zen. Eta baita lortu ere: 2003tik darama euskara irakasle gisa.

52. Euskaltegiko ikasleen perfilaren aldaketa (GAS-004/009)

Euskaltegiko ikasleen tipologia aldatu dela nabaritu du. Irakasle hasi zenean, 2003. urte inguruan, ikasle gehienak titulazio baten bila zihoazen. Aldiz, bera euskaltegiko ikaslea izan zenean, hizkuntza bera ikastearen gogoagatik ematen zuten gehienek izena.

53. Euskara ikastea garestia da (GAS-004/013)

Euskara ikasteko badira laguntzak baina nahiko txikiak. Bere ustez, gabezia asko ditugu hizkuntza politikan. Euskara ikastea garestia da. Katalunian, adibidez, katalana ikasteko ikastaro oso merkeak daude, hizkuntza azkar ikasi eta praktikan jartzeko aukera ematen dute.

54. Gasteizen euskaraz bizi al daiteke? (GAS-004/014)

Jordi ia ehuneko ehunean euskaraz bizi da Gasteizen. Euskaltegiko lankideekin, noski, euskaraz egiten du. Baina hortik kanpo ere, erosketak egiterakoan adibidez, identifikatuta ditu euskaraz egiten duten dendariak. Alde Zaharreko tabernetan ere ez du arazorik izaten.

55. Katalanezko "mintzalaguna" sortu zuten (GAS-004/016)

Euskaltegiko beste irakasle batekin katalana erabiltzeko talde bat sortu zuen. Astero elkartzen da taberna batean katalana praktikatu nahi duen jendea.

56. Gasteizen dagoen hizkuntza aniztasuna (GAS-004/017)

Gasteizen entzun daitezkeen hizkuntza ezberdinak: urdua, arabiera, amazigera, txinera, farsiera... Kultura eta pentsamolde desberdin hauek ezagutzeak herri bezala aberastasuna ematen digute.

57. Etorkinentzat euskara ikasteko erraztasunik ez (GAS-004/018)

Etorkinak euskaltegira ez dira hurbiltzen, batez ere garestia delako. Udalak antolatzen dituen programen bitartez badaukate aukera euskararekin lehen harremana izateko. Hala ere, euskara ikasteko nahikoa laguntza ez dagoela uste du.

58. Euskarak eman diona I (GAS-004/019)

Gauza asko ekarri dizkio euskara ikasteak: kultura barrutik ezagutzea, sozializatzeko aukera... Bilboko euskara irakasleak behin esan ziona. Herritartasuna eman dio euskarak.

59. Euskarak eman diona II (GAS-004/022)

Zoriona eman dio euskarak. Lagunak, herri bat barrutik ezagutzea, harreman mota asko...

60. Egoera barregarriak azentua dela eta (GAS-004/025)

Euskaldun zaharrek bere azentuan zerbait arraroa topatzen dute eta katalana dela esatean harritu egiten dira. Aldiz, gazteleraz egiten duenean segituan igartzen zaio katalana dela eta hor egoera barregarriak sortzen dira. Bizkaira joaten denean hango euskalkian egiten du. Kostaldekoek barnealdekoa dela pentsatzen dute, eta alderantziz.

61. Euskarazko komunikabideak (GAS-004/027)

Euskadi Irratia indartsu ikusten du. Euskal Telebista hobetu daitekeela uste du. ETB2 erakargarriagoa ikusten du, ETB1 baino. Gasteizko komunikabideak. Jende askoren ahaleginari esker, euskara pixkanaka aurrera doa.

62. Hizkuntza ohiturak aldatzearen meritua (GAS-004/029)

Euskara ikastean berak baino meritu gehiago duen jendea badagoela uste du. Familia erdalduna izan eta hizkuntza ohiturak aldatzeko ahalegina egin duena, adibidez.

63. Familiak euskararekin zeukan harremana (GAS-005/002)

Gurasoek ez zekiten euskaraz. Amaren herrian hitz solte batzuk erabiltzen ziren baina inork ez zituen lotzen euskararekin. Familian ez zegoen bereziki euskararen aldeko jarrerarik. Txikia zela gertatutako anekdota. Gerra garaiak pisu handia izan zuen.

64. Euskarara nola hurbildu zen (GAS-005/004)

Euskararekin lehen kontaktua. Kataluniako udalekuko anekdota. Euskara ikasteko interesa piztu zitzaion. Bizkaia eta Gipuzkoatik lanera etorritako jendearekin harremana. 18 urterekin erabaki zuen euskara ikastera Gipuzkoara joatea. Egunez lan egiten zuen eta gauez euskarazko klaseak jasotzen zituen.

65. Euskararen heldulekuak Bilbon (GAS-005/006)

Bilbora joan zen Soziologia ikastera. Herri Irratiko euskarazko saioak jarraitzen zituen. Mintzalagunaren antzeko programa bat ere bazen. Udako Euskal Unibertsitatea ere sortua zen ordurako. Giro horri esker heldu ahal izan zion euskarari.

66. Euskal Kulturaren bilakaera Gasteizen (GAS-005/007)

Umetan ezagututako giro erdaldun hori pixkanaka aldatzen hasi zen. Ekimen kulturalak martxan jartzen hasi ziren: liburu eta disko azoka, dantza taldeak... Halakoetan hasi zen garatzen euskal kultura eta euskararen aldeko mugimendua. Txirinbil dantza taldean ibili zen Iñaki. Francoren ministro baten aurrean dantzatu nahi izan ez zutelako taldea utzi behar izan zuten eta beste bat sortu zuten: Lantzale.

67. Gasteizen euskara bultzatzeko mugimenduak (GAS-005/008)

Diktaduraren azken urteetan erreferente garrantzitsuak izan ziren 'Presa' (Felix Lopez Presa) eta haren euskarazko eskolak. Fraide agustindarrek eta haien inguruan bildutako gazte taldeek ere mugarri bat ezarri zuten euskal kulturaren aldeko mugimenduan.

68. Gasteizko euskararen garapena (GAS-005/010)

Gasteizko euskarari dagokionez, irakurketa baikorra egiten du. Umea zenean euskara "ez zen existitzen". Gaur egun berriz, nahiz eta hizkuntza guztiz normalizatua ez izan, badu aitortza bat eta batez ere gazteen artean badu oinarri sendo bat. Ezin dira ahaztu erdaldunak izanik euskararen alde lan egin duten pertsonak. Arabako Foru Aldundiak ere ikastola batzuk sortu zituen.

69. Euskarari bultzada hezkuntzari esker (GAS-005/011)

50. eta 60. hamarkadetan Gipuzkoa eta Bizkaitik langile asko etorri ziren. Nahiz eta sentimendu eta gaitasun aldetik euskaltzaleak izan, erabileraren aldetik ez zen dinamika oso euskaltzalea bultzatu. Hezkuntzaren bidez aldaketa handia etorri zen gero.

70. AEK eta euskarazko meza (GAS-005/013)

Karrera amaitu ondoren AEK-ko irakasle izan zen. AEK-k ere asko lagundu zuen euskal giroa bultzatzen eta jendea biltzen. Euskararentzat beste bilgune garrantzitsu bat euskarazko meza izan zen.

71. Euskararen erabilera bermatzen zuten lekuak ugaritzen (GAS-005/014)

80. hamarkadan, euskararen erabilera bermatzen zuten lekuak ugaritzen hasi ziren: administrazio publikoan, hezkuntzan...

72. Gasteizen euskaraz bizi al daiteke? (GAS-005/016)

Gizarteak ez gaitu erabat baldintzatzen, norberak aukeratu dezake zein girotan mugitzen den. Lan munduan agian hizkuntza ez da lehentasuna izango, baina beste arlo batzuetan badaude aukerak. Unibertsitatean euskarak izan duen bilakaera.

73. Euskararen prestigioa (GAS-005/017)

Euskara garai batean bigarren mailako hizkuntzatzat hartzen zen. Industrializazio garaian, adibidez, nabarmena izan zen: modernitatearekin lotzen zen hizkuntza gaztelera zen. Batez ere abertzaletasunetik bultzatu zen euskara eta bere prestigioa. Hala ere, gaur egun oraindik badaude nahiz eta euskaltzale izan, euskara bigarren mailako hizkuntza bezala ikusten duen jendearen adibideak.

74. Euskararen kontrako jarrerak (GAS-005/020)

Euskararen kontrako jarrerak kalean. Abertzaletasuna eta euskara lotzearen aurreiritziak. Hizkuntza gutxituen eta aniztasunaren aldeko mugimenduak garatzen ari dira mundu mailan. Jendearen pentsamoldea aldatzen doa.

75. Euskalkiaren "inbidiaz" (GAS-005/021)

Batzuetan sentitu izan du euskalkiaren falta. Hitanoarena ere bai. Gasteizen euskalki desberdin asko entzun daitezke. Azken urteetan badirudi euskalkien indartze bat egon dela eta hori polita eta aberasgarria da.

76. Gasteiztarra eta euskalduna (GAS-005/023)

Askotan gertatu zaio jendea harritzea gasteiztarra eta euskalduna dela jakitean. Arabarrei buruzko burlak.

77. Soziolinguistika Klusterraren sorrera (GAS-005/024)

Soziolinguistika Klusterraren sortzaileetako bat izan zen. Sorrerara iritsi arteko ibilbidea. Lehen lehendakaria izan zen Iñaki.

78. Soziolinguistika Klusterraren helburuak (GAS-005/025)

Soziolinguistika Klusterraren eginkizun eta helburuei buruz dihardu Iñakik.

79. Gauza asko eman dizkio euskarak (GAS-005/027)

Gauza asko eman dizkio euskarak, pertsona bezala, komunitate bateko kide bezala... Deigarria egin izan zaio beti euskaraz ikasten duten gaztetxoek, nahiz eta beraien artean gazteleraz egin, Euskal Herritik ateratzen direnean euskaraz egitea, besteengandik desberdintzeko modu bezala.

80. Hizkuntzaren kalitatea hobetzeko, estatusaren egoera aldatu behar (GAS-005/028)

Hizkuntza bat erabat normalizatua denean, jendeari ez dio haren kalitateak asko kezkatzen. Hizkuntza gutxituen kasuan, aldiz, bai. Cuscon (Peru) astebeteko egonaldian ketxua hiztunekin bizitakoa. Hizkuntzaren kalitateak estatusarekin zerikusi zuzena dauka.

81. Euskararekiko konplexuak (GAS-005/029)

Edozein hizkuntzan berria denarentzat ahalegin berezi bat eskatzen du hizkuntza horretan aritzeak. Oraindik badugu euskara bigarren mailako hizkuntza izatearen ezkutuko sentimendua.

82. Hizkuntzarekin sortzen diren egoerak (GAS-005/030)

Donostiako taberna bateko anekdota, hizkuntzarekiko aurreiritziei buruz. Harreman ezberdinetan hizkuntzarekin sortzen diren egoerak. Argian publikatutako istorio bat.

83. Euskararen egoera, etorkizunera begira (GAS-005/032)

Euskararen egoerari buruzko hausnarketa pertsonala. Hizkuntza aniztasunari buruzko gogoetak.

84. Euskararekiko maitasuna amari zor dio (GAS-006/002)

Bere familian beti egon da euskararen aldeko jarrera, baina gazteleraz egin izan dute gehienbat. Ama Ane jaio ondoren hasi zen euskara ikasten. Anek euskara eskolan ikasi bazuen ere, uste du euskararekiko maitasuna amak transmititu ziola.

85. Euskara, bizitza filosofia bat (GAS-006/003)

Gaur egun bere bizitza euskararen inguruan dago eraikia. Bizitza filosofia bat da, bere ustez. Garai batean nagusiki gazteleraz bizi zen eta oso inkoherentea sentitzen zen. Orain harro dago aldaketa egin izanaz. Hizkuntza ohiturak aldatu daitezkeela konturatu zen eta hori mugarri bat izan zen. Zenbat eta gehiago euskaraz egin, inguruko jendea ere animatzen dela uste du.

86. Euskara vs gaztelera (GAS-006/004)

Espresio batzuk gazteleraz erabiltzen ditu. Baina horrek ez du asko kezkatzen, azken batean, bere jardunaren beste %90a euskaraz delako. Euskaraz tresnak falta zaizkigulako batzuetan gaztelerara jotzea normala da, gure errealitate soziolinguistikoa kontuan izanda.

87. Harreman berriak euskaraz egiten saiatzen da (GAS-006/006)

Euskaraz hitz eginez hobeto sentitzen da, sinesten duen bideari jarraitzen dabilela sentitzen duelako. Baina gazteleraz egin behar badu ere ez da gaizki sentitzen; azken batean hizkuntzak komunikazio tresna bat dira. Harreman berriak euskaraz egiten saiatzen da.

88. Bere euskararen erabilera zabalduz (GAS-006/008)

Euskarak beti izan du presentzia bere familian: osaba frankismo garaian hasi zen euskara ikasten; aiton-amonek euskarazko abestiak kantatzen zituzten.

Eskolan ere dena euskaraz egiten zuten. Baina hortik kanpora, gazteleraz egiten zuen. Arlo batzuetara mugatua zeukan euskara. Pixkanaka zabaltzen joan da eremu gehiagotara.

89. Gasteiz, gero eta euskaldunagoa (GAS-006/009)

Gasteizen euskaraz gero eta gehiago egiten dela nabari du. Kezka bat dagoela sumatzen du, adibidez, gurasoen artean. Bilakaera handia izan da. Proiektu berriak sortzen ari dira eta sarea zabaltzen doa. Euskararen kontrako jarrerak ere txikitzen doaz.

90. Euskararen transmisioa, behetik gora (GAS-006/010)

Heldu eta guraso askok, gazte edo seme-alabei esker ikasten dute euskara.

91. Euskarak espazio berriak irabazi behar ditu (GAS-006/011)

Euskarak espazio berriak irabazi behar ditu, batez ere aisialdian. Mintzalaguna egitasmoa Gasteizen indartsua da. Gogo eta behar bat ikusten da. Alea aldizkaria. Oihaneder Euskararen Etxea.

92. Euskara sustatzeko, emozioetan dago gakoa (GAS-006/013)

Eskolan euskaraz baina patiora irten eta gazteleraz egiten dute askotan haurrek. Aneri ere gertatzen zitzaion baino beretzat euskaraz egitea harrotasun bat zen. Bere ustez emozioetan dago gakoa: jendeak euskara berea dela sentitu behar du. Eta horretarako egitasmoak sustatu behar dira.

93. Euskararen balio erantsiak (GAS-006/015)

Talde folkloriko bat daukate eta triki-poteoan ateratzen direnean, inbidia puntu bat nabari du jendearengan. Hor dago gakoa, bere ustez: euskarak giro hori, momentu horiek eman diezazkiekeela erakustea.

94. Gasteizen euskaraz bizi al daiteke? (GAS-006/016)

Zure aldetik ahalegina egin behar duzu Gasteizen euskaraz bizitzeko, ez da erraza. Saltokietan saiatzen da lehen hitza euskaraz egiten. Jarrera positiboagoa nabari du jendearengan.

95. Euskararekiko aurreiritziak eta erantzun txarrak (GAS-006/017)

Aurreiritziei buruzko anekdota. Erantzun txarrak jaso izan ditu, tabernaren batean, adibidez. Horien aurrean bere iritziz izan beharko genukeen jarrera. Etorkinekin harremana.

96. Gasteiztarra eta euskalduna (GAS-006/019)

Jendea harritu izan da gasteiztarra izan eta euskaraz dakiela jakitean. Hasieran harrotasuna sentitzen zuen baina denborarekin amorru puntu batean bilakatu zen. Gaur egun uste du gero eta jende gehiagok ulertzen duela Gasteiz ere euskalduna dela.

97. Txikitasunetik, handi sentitzea (GAS-006/020)

Batzuetan oso txiki sentitzen da, mugatua. Euskalkiaren inbidia ere sentitu izan du. Baina bakoitzak bere oinarritik egin behar du bidea.

98. Euskarazko hedabideak Gasteizen (GAS-006/023)

Nahiko berriak dira euskarazko tokiko komunikabideak Gasteizen: 'Alea' eta GEU aldizkariak; 'Hirinet' webgunea; 'Hala bedi' irratia. Pixkanaka garatzen ari dira.

99. Orkestrarekin Gasteizera etorri eta bertan bizitzen gelditu zen (GAS-007/002)

Georgian jaio zen. Musikaria da eta bere hiriko orkestrarekin etorri zen Gasteizera lehen aldiz gaztetxoa zenean. Bertan gelditu zen bizitzen beste bi lagunekin.

100. Beti nahi izan du euskara ikasi (GAS-007/003)

Georgian aitzinean euskaldunekin harremana egon zenaren ustea dago eta horregatik han badute euskararen berri. Megik beti nahi izan zuen ikasi.

101. Euskaltegian euskara ikasten hasi zen (GAS-007/004)

Musika irakaslea da eta biolina jotzen du. Denboraldi batean Mikel Urdangarinekin lan egin zuen eta haren "euskara gozoak" gehiago piztu zion Megiri hizkuntza ikasteko gogoa. Ika euskaltegian hasi zen.

102. Euskara eta georgieraren antzekotasunak (GAS-007/005)

Ika euskaltegian hasi zen. Hasieran ez zitzaion zaila egin, georgierarekin dituen antzekotasunengatik. Gramatika aldetik antzekoak dira eta hitz batzuek ere berdin idazten dira, nahiz eta esanahi desberdina izan. Gogoz hartu zuen eta esfortzu handia egiten zuen.

103. Euskara praktikatzeko zailtasunak (GAS-007/006)

Hasieran ez zitzaion euskara oso zaila iruditu. Baina mintzamenean oraindik arazoak ditu, batez ere bere inguruan ezin duelako praktikan jarri. Dakitenei eskatzen die berari euskaraz egiteko. Euskaltegiko lagun batzuek oraindik ere mantentzen ditu eta mintzalagun programan ere badabil.

104. Georgia eta Euskal Herria: hizkuntza babesten saiatzen diren herrialde txikiak (GAS-007/007)

Euskal Herriko egoera Georgiakoarekin lotzen du beti: beren hizkuntza babesten saiatzen diren herrialde txikiak dira biak. Izugarri gustatzen zaio euskara. Oso hizkuntza logikoa iruditzen zaio.

105. Gasteizen euskaraz bizi al daiteke? (GAS-007/009)

Gasteizen badaude euskaraz bizi diren zirkuluak. Bere seme-alabek, adibidez, euskaraz ikasten dute eta ikasleen guraso asko ere euskaraz bizi dira. Berak ez dauka kalean praktikatzeko aukera askorik. Oraindik lotsa ematen dio baina ahalegina egiten du.

106. Euskara ikastea garestia da (GAS-007/014)

Lehen berak ere euskara ikastea garestia zela uste zuen. Ez zuen ulertzen bultzatu nahi den hizkuntza bat ikasteko ordaindu beharra.

107. Gasteizko euskararen egoera gaur egun (GAS-007/016)

Bera Gasteizera iritsi zenetik gaur egunera nabaritu du garapen bat euskararen egoeran. Euskadi osotik kontzertuak ematen ibili izan da eta orokorrean Gasteizen baino euskaldun gehiago ikusi du beste leku batzuetan. Hala ere, azken urteetan nabari du aldaketa.

108. Mikel Urdangarinekin izandako anekdota (GAS-007/018)

Mikel Urdangarinekin lanean ziharduela izandako anekdota. Abestien letrak buruz ikasi zituen, baina ez zekien ondo nola idazten ziren.

109. Euskararen kontrako eta aldeko jarrerak (GAS-007/019)

Lanerako behar dutela eta euskara derrigorrez ikasi behar izan duen jendearen partetik entzun izan ditu kontrako jarrerak. Euskararen aldeko jarrera duen jendea badu inguruan.

110. Bere euskararen ezagutza prozesua (GAS-008/002)

Familian ez dute euskararen presentzia askorik izan. Eskolan ere ez, guraso batzuek bultzatuta euskarazko eskolak jasotzeko talde bat sortu zen arte. Kuadrillan ia gehienek euskaraz egiten dute. Unibertsitatean egon eta gero hasi zen euskaltegian ikasten. Gaztetan 'Hertzainak' taldearen jarraitzaile sutsuak ziren eta hori ere motibazioa izan zen.

111. Txikia zela euskara "ez zen existitzen" (GAS-008/004)

Txikia zela euskara "ez zen existitzen". Kirola egitera Arrasatera adibidez askotan joaten ziren eta sumatzen zuten desberdintasun hori.

112. Euskara ikasle izatetik, euskara irakasle izatera (GAS-008/005)

Berak argi izan zuen euskalduna izan behar zuela. Gainera, euskara ikasten ondo pasatu zuen. Bere euskara irakasleak miresten zituen, beraien artean zegoen giroa. EGAko titulua lortzeko barnetegi batean egon zen. Euskara irakasle gisa ibili zen Arabako herri txiki batzuetan.

113. "Edukazio on madarikatu hori" (GAS-008/007)

Euskararen egoeraren bilakaera izugarria izan da Gasteizen. Gaur egun badirudi beherantz doala hainbat faktorerengatik. Erabileran dauden oztopoak; euskara ez da erabiltzen behar beste "edukazio onekoak" garelako. Jende asko pasatu da euskaltegietatik.

114. Euskararen aldeko mugimenduak (GAS-008/008)

Euskararen aldeko mugimenduak hasiak ziren bera gaztea zela. Bagare eta Parral tabernak. Hala Bedi irratia. Ikastolak eta euskaltegiak.

115. Euskaltegietako ikasleen kopurua eta perfila nola aldatu den (GAS-008/009)

Bera euskaltegian ibili zenean ikasle gutxiago zeuden, gerora izugarrizko hazkundea egon da. Beraiek gazteago hasi ziren eta motibazioa ere

desberdina zen. Gaur egungo ikaslearen figura gutxietsi egiten dela uste du. Gaur egun ikasle kopura jaitsi egin da. Bizimodua aldatu da eta lehengo klaseen erritmoa pentsaezina da.

116. Euskara ikastea garestia da (GAS-008/010)

Euskara ikasteko laguntzak badaude, baina jende guztiak ezin ditu klaseak ordaindu. Hizkuntza Eskolan adibidez, askoz merkeagoa da matrikula eta itxaron zerrenda izugarria da. Horrek esan nahi du jende asko dagoela euskara ikasi nahian.

117. Gasteizen euskaraz bizi al daiteke? (GAS-008/011)

Euskaraz norekin egiten duen kontatzen du. Euskaraz egiteko Gasteizen aukera nahikoak badaudela uste du.

118. Gasteizko euskal kultur giroa (GAS-008/012)

Gasteizen badira kanpotik etorritako musikari batzuk: Ruper Ordorika eta Mikel Urdangarinek, adibidez, laguntza handia eman diote euskarari. Belaunaldi euskaldunen arteko harremana.

119. 'Hertzainak' taldeak aldaketa ekarri zuen (GAS-008/013)

'Hertzainak' taldeak bide bat zabaldu zuela uste du. Haien pausoen atzetik beste batzuk etorri ziren.

120. Gasteizko alde zaharra eta beste auzoak (GAS-008/015)

Gasteizko alde zaharreko giroa. Beste auzo batzuk ere aipatzen ditu. Industrializazio garaian auzo berriak sortu ziren.

121. Euskara, integraziorako giltza (GAS-008/016)

Jatorri aniztasun handia dago Gasteizen. Euskara integraziorako giltza dela uste du.

122. Euskararen prestigioari min egiten dioten erabakiak (GAS-008/017)

Euskararekiko aurreiritziak orokorrean gaindituta daudela uste du. Gaur egun euskararen prestigioari min gehiago egiten dio benetan maila bat ez duen jendeari titulazio bat aitortzeak. Hori beste hizkuntzekin ez da gertatzen.

123. Euskararen kontrako jarrerak (GAS-008/018)

Txikitan euskararen kontrako jarrerak ezagutu izan zituen. Behin lagun bat eta bera zigortuta eskolatik etxera bidali zituzten euskaraz zerbait esateagatik. Garai batean beldur mezuak ere zabaltzen ziren: euskara ez zekienak lana bilatzeko arazoak izango zituela etab. Osakidetzako adibidea.

124. Euskalki bakoitza ondare bat da (GAS-008/020)

Euskalkiak euskararen aberastasun bat gehiago dira, nahiz eta batzuetan ulertzea kostatu. Leitzan izandako anekdota bat. Garai batean Napartheid komikian parte hartu zuen, leku askotara joaten ziren eta ez zuten ulertzeko arazorik izaten. Batuari egiten zaizkion kritikekin ez dago ados.

125. Arabarrekiko aurreiritziak (GAS-008/022)

Arabarrekiko aurreiritziak. Konparaketak ez zaizkio gustatzen. Euskararentzat gune garrantzitsua bada Gasteiz.

126. Kalitatearekin tematzeak, onik ez euskarari (GAS-008/023)

Euskaren kalitateak ez du hainbeste kezkatzen; garrantzitsuena saiatzea da, eta bakoitzak nahi duenean erabiltzea. Euskararen kalitatearekin tematzeak, kalte egiten dio ikasketa prozesuari.

127. Euskaldunen konplexuak (GAS-008/024)

Euskaldun zaharrek batzuetan izaten duten konplexua, "euskara txarra" egiten dutela uste dutelako. Euskalkien inguruko anekdota bat kontatzen du.

128. Hiru anai-arrebak euskaldunak (GAS-009/004)

Euskara etxean ez du jaso. Gurasoak erdaldunak ditu eta anai-arrebetatik ikastolara joan den bakarra bera izan da. Bere arrebak Errezilgo baserri batean ikasi zuen euskara. Anaiak, berriz, euskaltegian.

129. Arantzazu, inflexio puntua (GAS-009/005)

Hiru anai-arrebetatik gazteena da bera eta aukera izan zuen ikastolara joateko. Hala ere, hizkuntza eredua ez zegoen oso zehaztuta eta neurri batean beretzat kalterako izan zela uste du. 12 urterekin Arantzazura (Oñati) joan zen ikastera. Hura izan zen beretzat euskara eta euskal kultura ezagutzeko urratsik handiena.

130. Euskaltegian euskara ikasten (GAS-009/007)

Arantzazun (Oñati) egon eta gero, Gasteizen institutuan ikasten hasi zen. Euskaltegian hasi zen orduan. Gaur egun Gasteizen euskaraz bizitzea oso zaila da. Hizkuntz ohiturak aldatzea ez da erraza. 18 urterekin EGA titulua atera zuen.

131. Irakasle Udaberria euskaltegian (GAS-009/008)

Lan harremanetan diplomatua da eta sindikalgintzan ibili izan zen. Irakasle bezala aritu izan da gero Udaberria euskaltegian. AEK eta IKA. Udaberriako irakasle gehienak ez dira arabarrak. Euskal Filologia ikastera etorri den jende asko Gasteizen gelditu da bizitzen.

132. Musikarako zaletasuna txikitatik (GAS-009/009)

Txikitan beti abesten aritzen zen. Arantzazun (Oñati) abesbatzan ere egon zen. Anaiak kontzertuetara eramaten zuen. Institutuko lagun batzuekin bertsioak egiten hasi zen eta gero beraien kantuak egitera pasa ziren.

133. 'Betagarri', musika talde berritzailea (GAS-009/010)

'Betagarri' sortu zenean, Gasteizen ez zegoen ez ska talderik, ez euskaraz abesten zuen talderik. Euskal musika, musika "aspergarriarekin" lotzen zen neurri batean. Oso Oskorri zalea zen bera.

134. 'La nave pirata' entsegu lokalaren sorrera (GAS-009/011)

Bere amaren herrian, Eharin, hasi ziren entseguak egiten. Han Gasteizko musikari batzuk ezagutu zituzten eta proiektu autofinantzatu bat jarri zuten martxan. 'La nave pirata' deituriko lokala eraiki zuten eta han grabaturiko maketak 'Betagarri' ezagutzera eman zuen.

135. 'Betagarri'-ren erreferentzia musikalak (GAS-009/013)

'Betagarri' taldeak argi zeukan euskaraz abestuko zuela, nahiz eta ez zen beraien ama hizkuntza eta taldekide batzuk ez ziren euskaldunak. Erreferentzia musikalak: 'Hertzainak', 'Kortatu', 80. hamarkadako ska taldeak...

136. 'Betagarri'-k bere estilo propioa sortu zuen (GAS-009/014)

'Hertzainak' taldea erreferente bat izan zen beraientzat. 'Betagarri'-k bere estilo propioa sortu zuen eta gaur egun beste talde batzuen erreferente bilakatu dela esan daiteke.

137. Abestien hizkuntzari buruz (GAS-009/016)

Taldekide guztiak ados zeuden euskaraz abestearekin. Beste hizkuntza batzuetan ere egin izan dituzte kantak. Abestiak aukeratzerakoan erritmoa edo musikak lehentasuna dauka hizkuntzaren aurrean.

138. Lekuaren eta garaiaren arabera, publikoaren harrera desberdina (GAS-009/017)

Lekuaren arabera publikoaren erreakzioa desberdina izaten da kontzertuetan. Lehen funtzionatzen zuten abestiek agian urte batzuk beranduago ez dute funtzionatzen. Beraien ibilbidean estilo aldaketa batzuk ere probatu izan dituzte.

139. Estilo aldaketa modu naturalean etorri zen (GAS-009/018)

Beti abesti mota berdina egiteak nekatu egiten du eta 'Betagarri'-ren estiloan aldaketa bat egon zen. Zaila eta arriskutsua da aldaketa egitea. Ez zuten publiko berria bilatzeagatik egin, modu naturalean gertatu zen. Orain disko berri baten prozesuan dabiltza eta abestien aukeraketa zaila da.

140. 'Betagarri'-ren ikuslegoa aldatuz joan da (GAS-009/019)

Gaur egun duten ikuslegoa gaztea da batez ere. Helduagoek, betiko jarraitzaileek, dagoeneko haurrak dituzte eta zailagoa da hauek kontzertuetara joatea. Kontzertu asko emateak jendea nekatu dezake.

141. Azken urteetako kontzertuen beherakada (GAS-009/020)

Beti izan dute kontzertu asko, azken urteetan beherakada egon den arren. Garairik oparoena 10 urte bete zituztenean izan zen. Antzeko beste talde batzuk agertu izana da arrazoietako bat. Estiloa aldatu izana izan daiteke beste bat.

142. Birak egiteari utzi diote, nahiz eta oso aberasgarria izan (GAS-009/021)

Azken urteetan kontzertuen beherakada izan dute. Gaur egun birak egiteari utzi diote, oso polita baina oso nekagarria delako. Lana, familia... daukate eta gero eta zailagoa da.

143. Musikak hizkuntza gainditzen du (GAS-009/023)

Euskaraz abesteak agian gehiago mugatzen du Gasteizen. Euskal hiztuna ez den jende asko joaten da beraien kontzertuetara. Atzerrian jende alternatiboa erakarri izan dute. Gasteizen euskararen bilakaera izugarria izan da.

144. Musikagatik euskarara hurbildu (GAS-009/025)

Musika edozein jaietan dago eta beraz jendearengana iristeko errazagoa da, baita euskarari dagokionean ere. Badago jendea musikagatik euskarara hurbildu dena, baita atzerrian ere.

145. "Atzerrian ere abestiak euskaraz?" (GAS-009/027)

Kanpora joandakoan abestien hizkuntza aldatzen duten galdetu izan diete.

146. Gasteiz eta Arabarekiko aurreiritziak (GAS-009/028)

Gasteiztarra eta euskalduna zela jakitean harritzen zen jendea bazegoen lehen. Gaztetan behin Hernanin esan ziotena. Euskararen egoeraren aldaketa nabarmena izan da.

147. Gasteizko kaleetan euskara entzutean, harritu (GAS-010/003)

Bera umea zenean Gasteiz ez zen batere euskalduna. Kaletik joan eta norbait euskaraz entzutean, harritu egiten ziren. Bere lagun gehienen gurasoak erdaldunak ziren eta gehienetan gazteleraz egiten zuen haiekin.

148. Gasteiztarrekiko aurreiritzia (GAS-010/005)

Bilbora joan zen kazetaritza ikastera. Askotan galdetu izan diote: "Gasteiztarra eta euskalduna?". Oraindik ere batzuetan badago aurreiritzi hori.

149. Euskararen egoeraren bilakaera handia Gasteizen (GAS-010/006)

Euskararen egoeraren bilakaera handia izan da Gasteizen, nahiz eta batzuetan sumatu daitekeen oraindik gaztelera dela hizkuntza nagusia.

150. Hezkuntzak eta herri mugimenduek bultzatu dute euskara (GAS-010/008)

Euskararen garapenean hezkuntza izan da faktore garrantzitsuetako bat. Guraso asko ikasten ari dira, umeek eskolatik ekarri dutelako. Elkarte eta herri mugimenduen lana ere hor dago. Gasteizera jende asko etorri da kanpotik, eta unibertsitateak ere beste giro bat sortu du.

151. Gasteizen euskaraz bizi al daiteke? (GAS-010/009)

Gasteizen ehuneko ehunean euskaraz bizitzea ez dela posible uste du. Desberdintasuna handiak daude auzoaren arabera. Hala ere, gertatu izan zaio espero ez zuen giro batean berak gazteleraz hitz egin eta erantzuna euskaraz jasotzea.

152. Nola hasi zen idazten (GAS-010/010)

Irakurzaletasunak bultzatuta hasiko zela idazten pentsatzen du. Komunikatzeko behar batetik ere sortu zitzaion idazteko nahia.

153. Atxagaren 'Obabakoak'-ek markatu egin zuen (GAS-010/011)

Hasiera batean gehiago irakurtzen zuen gazteleraz, beranduago murgildu zen euskarazko literaturan. Bernardo Atxagaren 'Obabakoak' edo Arantxa Iturberen ipuinak ditu gogoan eta haiekin konturatu zen euskaraz ere literatura ona egin zitekeela.

154. Euskaraz idaztearen hautua (GAS-010/014)

Hasieran bi hizkuntzatan idazten zuen baina momentu batean argi ikusi zuen euskaraz egin nahi zuela.

155. Idazketa prozesua (GAS-010/015)

Beretzat oso zaila da idatzi aurretik istorio bat hasieratik bukaerara pentsatuta izatea; idatzi ahala sortzen du istorioa.

156. Paper zuriari beldurrik ez (GAS-010/016)

Paper zuriari beldurrik ez dio, beti aurrera jarraitzen du. Esan nahi duena ondo adierazi ezinak ematen dio beldur gehiago. Amaitu ondoren, beti pentsatzen du hobeto egin zezakeela; zentzu horretan bere buruarekin nahiko zorrotza da.

157. 'Amaren eskuak', paperetik zinemara (GAS-010/017)

Karmelek idatzitako lehen nobela, 'Amaren eskuak', zinemara iritsi da. Barne mundu asko du eta akzio gutxi, eta horrek beldur pixka bat ematen zion, baina pozik geratu da. Filmatzearen egun batean bertan izan zen eta oso arraroa egin zitzaion berak sortutako pertsonaiak han ikusteak.

158. Gasteizen gero eta euskal idazle gehiago (GAS-010/019)

Gaur egun Gasteizen gero eta euskal idazle gehiago daude. Idazten hasten direnentzako garrantzitsua da gertuko erreferentziak izatea. Emakume idazleen kopuruak gora egitea ere garrantzitsua da.

159. Idazterakoan bakardadea nahiago du (GAS-010/020)

Nahiz eta Gasteizko beste idazleekin harremana baduen, lan egiteko orduan bakardadea defendatzen du. Kanpoko influentzia asko izateak benetan esan nahi zenuena galtzera eraman zaitzake.

160. Euskal literaturaren periferian eroso sentitzen da (GAS-010/021)

Euskal literaturaren erdigunea ez dago Gasteizen, zentzu horretan bertako idazleak periferian bizi dira. Baina bera eroso dago periferia horretan.

161. 'Emakunde'-n euskararen erabilera gero eta handiagoa (GAS-010/024)

Gaur egun 'Emakunde'-ko prentsa bulegoan egiten du lan eta guztia bi hizkuntzatan idazten du. Euskararen erabilera gero eta handiagoa dela nabaritu du. Lan harreman gehienak euskaraz dira.

162. Genero ikuspegiaren eragina (GAS-010/025)

Gaur egun Emakundeko prentsa bulegoan egiten du lan eta honek eragina izan du bai bere bizitzan, bai bere lanean. Egunero lan horretan egoteak ikuspegia aldatzen dizu. Gai honekin gero eta kontzientzia handiagoa dagoela uste du.

163. Emakume eta idazle (GAS-010/027)

Emakume izatea idazle izatearen gainetik jartzen da. Emakumea izateagatik literatura munduan errazago daukatenaren aurreiritzia dago. Emakumeek gai eta ikuspegi berriak ekarri dituzte literaturara baina askotan ez dira ikusten gai unibertsal bezala, baizik eta "emakumeen gai" moduan.

164. Egunkarietan egiten dituen kolaborazioak (GAS-010/030)

Gaur egun astero Noticias taldean artikulu bat idazten du. Deian eta Noticias de Gipuzkoan euskaraz ateratzen dira beti, Noticias de Álavan, aldiz, batzuetan gazteleraz ere bai. Irakurle erdaldunak bi aste jarraian euskaraz argitaratzeagatik kexatu izan zaizkio.

165. Euskarazko liburuek harrera hobea (GAS-010/031)

Bere gaztelerazko liburuek harrera ona izan dute, baina euskarazkoek hobea. Euskal literatura, literatura orokorraren periferian dago.

166. Euskararekin zerikusia duen txikitako anekdota (GAS-010/032)

Lagun batek Karmeleren amak esandakoa gaizki ulertu zueneko anekdota barregarria.

167. 13 urterekin barnetegi batera euskara ikastera (GAS-011/003)

Familiaren jatorria. Aitaren aldetik Soriakoak ziren. Amaren aldetik, berriz, nafarrak. Rubenek euskara ez zuen etxean jaso. Txikitan gazteleraz ikasi zuen apaiz ikastetxe batean. Baina 13-14 urterekin gurasoek bultzatu zituzten anai-arrebak euskara ikastera eta udan barnetegi batera ere joaten ziren.

168. Euskararekin lehen kontaktuak (GAS-011/004)

13-14 urterekin barnetegi batera joaten zen euskara ikastera. Horren aurretik eskolan euskararekin izandako lehen kontaktuak aipatzen ditu. Batxilerrean euskara irakasleak ez zien euskaraz "egun on" ere esaten.

169. Kalean "agur" entzun eta buelta erdi eman (GAS-011/005)

Umetan oso gutxi entzuten zuen euskara Gasteizen. Kalean "agur" entzun eta buelta erdi ematen zuten.

170. Euskara, protesta egiteko modu bat (GAS-011/006)

Gaztetxotan Rubenentzat euskara protesta egiteko modu bat zen.

171. Euskara nola ikasi zuen (GAS-011/007)

Enpresaritza ikastera joan zen Oñatira eta hango euskal giroan murgildu zenean erabaki zuen euskara ikastea. Pisukide azpeitiar batekin hasi zen euskaraz hitz egiten. Sasoi hartan neskek gehiago egiten zuten euskaraz mutilek baino.

172. Euskal filologia ikasi eta AEK-ko irakasle (GAS-011/009)

Enpresaritza ikasi ondoren segituan hasi zen lanean eta ez zitzaiola gustatzen konturatu zen. Euskal filologia ikasten hasi zen orduan. Gaur egun AEK-ko irakaslea da.

173. Euskara ikasteko erabakia (GAS-011/010)

Enpresaritza ikastera joan zen Oñatira eta hango euskal giroan murgildu zenean erabaki zuen euskara ikastea. Gero hasi zen Gasteizko euskal giroa ezagutzen. AEK-n lanean hasi zen eta gaur egun bizitza gehiena euskaraz egiten du.

174. Bertso eskolara joaten hasi zen (GAS-011/011)

Euskal kulturari buruz gehiago jakiten hasi zenean bertsolaritza ezagutu zuen. Beti gustatu izan zaio hizkuntzarekin jolastea eta fakultatean bertso eskolako kartel bat ikustean, taldetxo bat osatu eta izena eman zuten. Fakultatean amaitutakoan berak jarraitu egin zuen eta Bertsozale Elkartean sartu zen. Gaur egun eskoletan bertsolaritza tailerrak ematen ditu.

175. Arabako bertsolaritzaren bilakaera (GAS-011/012)

Arabako bertsolaritza euskalgintzarekin eskua emanda joan da. 80. hamarkadan ia militantziaz joaten zen jendea bertso saioak ikustera. Orain askoz jende gehiago joaten da eta gainera ez betebehar moduan, baizik eta gustatzen zaielako. Bertsolariak, bertsozaleak eta bertso giroa sortzen ikusi dute Araban.

176. Gasteizko bertsolariak eta 'Txusta' taberna (GAS-011/013)

80. hamarkadan Gasteizko eta Aiara aldeko bertso eskolak martxan jarri zituzten euskaldun berri batzuk izan ziren aurrekariak. Gero beste batzuk etorri ziren: Oihane Perea, Zigor Enbeita, Asier Otamendi, Asier Iriondo... Lehenengo bertso eskola 'Txusta' tabernan egon zen. Rubenek bertan egin zuen bere lehen bertso saioa.

177. Gaztetxoak bertsolaritzara erakartzea (GAS-011/015)

Gaur egun hip-hop-a bertsolaritzaren konpetentzia da eta gehienetan gaztelera edo ingelesez dator. Bertsolaritza, gaztetxoei esan nahi dutena adierazteko aukera bat dela transmititzen saiatzen dira bertso eskolan.

178. Bertso eskolen helburuak (GAS-011/017)

Bertso eskolaren helburua ez da bertsolariak sortzea bakarrik; ikasle guztiak ez doaz publikoki kantatzeko nahiarekin. Gazte horiek euskal giro batean murgiltzeko aukera izatea da Rubenentzat garrantzitsuena.

179. Hala Bedi irratiaren bilakaera (GAS-011/020)

Hala Bedi irratian ibili zen. Bi irratsaiotan hartzen zuen parte. Hala Bediren bilakaera.

180. Hezkuntza ereduei buruzko iritzia (GAS-011/024)

Rubenen ustez hezkuntza ereduena desastre bat da. Eskolan euskara jasotzeko aukera izan ez duten haurrek etorkizunean arazo bat izango dute, lan egiteko orduan, komunikatzeko, kultura ulertzeko... Eta gero euskara ikastea ez da hain erraza, denbora eta dirua eskatzen du. A ereduak ghettoak ere sortzen ditu.

181. Alde zaharreko eskola, A eredutik D eredura (GAS-011/025)

Alde zaharreko Ramon Bajo ikastetxe publikoa A eredutik D eredura pasa zen. Jatorri aniztasun handia dago bertan eta hori Rubenen ustez izugarri aberasgarria da umeentzat.

182. Gasteiztarrekiko aurreiritziak (GAS-011/026)

Gasteiztarra eta euskalduna izatearekin jendea harritzen denean ezjakintasunagatik da, Rubenen ustez.

183. Euskararen erabileraren erronkak I (GAS-011/027)

Ez du uste euskara maila berean aurrera egiten ari denik Euskal Herrian. Herri oso euskaldunetan askotan kontraesanak daude; nahiz eta euskal giroan hazi, gero komunikabideak, literatura eta abar kontsumitzerakoan gaztelerarako joera handia dago.

184. Euskararen erabileraren erronkak II (GAS-011/028)

Rubenen iritziz, euskararen erabilerarekin betidanik egon da kezka baina badirudi arnasguneetan erdara sartzen hasi denean konturatu direla batzuk arazoaz. Nahiz eta euskal giroan hazi, gero komunikabideak, literatura eta abar kontsumitzerakoan gaztelerarako joera handia dago.

185. Euskararen erabileraren erronkak III (GAS-011/029)

Euskararen kalitateak ez du kezkatzen, baldin eta hiztun hori aktiboa bada. Askotan kalitate faltarena euskaraz ez egiteko aitzakia gisa erabiltzen da. Euskararen normalizaziorako erronkak.

186. Gasteizen euskaraz bizi al daiteke? (GAS-011/030)

Gasteizen gaur egun bizi daiteke euskaraz. Astero daude ekintza kulturalak eta baita euskal gune eta hedabideak ere. Lodosako lagun batek urte eta erdian ikasi zuen euskara Gasteizen. Gasteizen guraso eta euskaltzaleek erakundeek baino borroka gehiago egin dute.

187. Euskara ikasten ari zela Zarauzko Euskal Jaira joan zenekoa (GAS-011/031)

Oñatin ikasten zegoela, Azpeitiko pisukidearen lagunekin Zarauzko Euskal Jaira joan zen. Ruben euskara ikasten ari zen orduan eta gau osoa lagunei ezin ulertu pasa zuen.

188. Eibarko ikastolaren hasiera (GAS-014/003)

Iñaki umea zenean ikasle guztiak lokal ezberdinetan sakabanatuta zeuden. Iturburuko ikastola eraiki zenean beraiek izan ziren lehenak hara iristen, baina oraindik obretan zegoen eta ez zeukan kontatu zietenaren antzik. Arrateko bidean dagoenez, mendira ihes egiten zuten edo oinez jaisten ziren hirigunera, nahiz eta debekatuta egon.

189. 80. hamarkadan Eibar oso erdalduna zen (GAS-014/004)

80. hamarkadan Eibar oso erdalduna zen. Nahiz eta etxean eta ikastolan euskaraz egin, futboleko kideekin adibidez gazteleraz egiten zuen. Bere anaiaren kuadrillari "Los Kaixos" esaten zieten.

190. Gasteizera nolatan iritsi zen (GAS-014/005)

Euskal Filologia ikastera joan zen Gasteizera. Gaur egungo fakultatea oraindik ez zen existitzen, seminario zaharrean zegoen orduan.

191. Bere ibilbidea euskarari lotua egon da (GAS-014/007)

Euskal Filologia amaitu aurretik IKA euskaltegian hasi zen lanean eta 5 urtez izan zen irakasle bertan. Gero lagun batzuekin ordura arte IKA-k kudeatutako 'Parral' taberna hartu zuen eta berriztu ondoren, 1995ean zabaldu zuten. Taberna utzi ondoren berriz euskalgintzara bueltatu zen.

192. 'Parral', taberna bat baino gehiago (GAS-014/008)

Gasteizko alde zaharreko taberna gehienak luzeak eta estuak dira. 'Parral', aldiz, nahiko handia zen eta hasieratik garbi zuten bertan ekitaldi kulturalak antolatu nahi zituztela. Beste taberna batzuekin elkartuta zirkuitu kultural bat sortu zuten. GEU euskara elkartearekin ere elkarlanean hasi ziren.

193. Euskararen bilakaera Gasteizen (GAS-014/009)

Iñaki Gasteizera iritsi zenean, gazte gehienak Zapatari kalean ibiltzen ziren eta horko giroa nahiko erdalduna zen, baita orokorrean Gasteizkoa ere. Lehen institutu euskalduna, Koldo Mitxelena, 1988koa da. 'Hala Bedi' irratia sortu zenean, gaur egun ez bezala, programazio guztia gazteleraz zen. 'Parral' zabaldu zutenean bazeuden taberna euskaldun gehiago, giroa aldatzen hasia zegoen.

194. 80. eta 90. hamarkadetako Gasteizko musika mundua (GAS-014/010)

80. eta 90. hamarkadetan musika talde ezagun asko sortu ziren Gasteizen: 'Hertzainak', 'Potato', Ruper Ordorika, 'Cicatriz'... Hainbat talde eta kantautore aipatzen ditu. Nabarmenenak 'Hertzainak', Gorka Knörr eta 'Betagarri' izan ziren garai hartan.

195. Gasteizko idazleak (GAS-014/012)

Letren Fakultateak eragin handia izan du Gasteizko kultur eskaintzan eta euskalduntzean. Gasteizko idazle batzuk aipatzen ditu: Xabier Montoia, Rikardo Arregi, Karmele Jaio... Eta bertara bizitzera etorritako beste batzuk: Bernardo Atxaga, Gerardo Markuleta... Antolatu izan diren ekitaldi kultural batzuk.

196. Bertsolaritzaren garapena Araban (GAS-014/013)

Araban 30 urtetan bertsolaritzak izan duen garapena. Lehenengo bertso eskolak. Gaur egun bi urtetik behin Arabako Bertsolari Txapelketa ospatzen da. Arabako Bertsozale Elkarteak ekimen berritzaileak jarri ditu martxan, kuadrilla arteko bertso txapelketa, adibidez.

197. GEU Euskara Elkarteko kidea (GAS-014/014)

2009an GEU aldizkaria desagertu zenean, proiektu komunikatibo bat lantzeko talde bat sortu zen eta Iñaki bertako partaide izan zen. Sareko albistegi bat sortu zuten, 'Hirinet'. 2015ean 'Alea' astekaria jaio zen, GEU elkartea, Goiena eta Berriak elkarlanean sortua. Elkarteko beste proiektu batzuetan ere parte hartu du.

198. GEU Euskara Elkarteko beste ekimen batzuk (GAS-014/015)

GEU Euskara Elkartearen proiektu batzuk: Mintzalaguna koordinatzea, komunikabideak kudeatzea ('Hirinet' webgunea eta 'Alea' astekaria), haur eta gurasoentzako 'Igandeak jai' programa, Gasteizko irakurle kluba, 'GEUrekin mendira'... Martxan jarriko den beste proiektu bati buruzko azalpenak.

199. 'Oihaneder Euskararen Etxea'-ren sorrera (GAS-014/016)

Gasteizko udalean 'Gasteiz Antzokia' izeneko proiektu bat onartu zen baina ez zuen aurrera jarraitu. 2012an Gasteizko Kafe Antzokiaren aldeko plataforma sortu zen, proiektu horri jarraipena ematea aldarrikatuz. Beste kafe antzokiekin konparatuz, zerbait desberdina nahi zuten eta horrela sortu zen Euskararen Etxearen ideia. Helburu nagusienak Gasteizko euskaltzaleen erreferente izatea, euskarazko sorkuntza bultzatzea eta erreferente kultural bihurtzea dira.

200. Gasteizko euskararen historia I (GAS-014/019)

Iñakik Gasteizko euskararen historiari buruzko ibilbide gidatuak egiten ditu. Bertan, batez ere, Gasteizen euskara inoiz galdu ez denaren hipotesia planteatzen dute. Euskararen presentzia egiaztatzen duten garai ezberdinetako adibideak aipatzen ditu.

201. Gasteizko euskararen historia II (GAS-014/020)

Iñakik Gasteizko euskararen historiari buruzko ibilbide gidatuak egiten ditu. Bertan, batez ere, Gasteizen euskara inoiz galdu ez denaren hipotesia planteatzen dute. Euskararen aldeko adierazpenak egin zituzten garai ezberdinetako pertsonaien adibideak aipatzen ditu. 1934an Gasteizen ospatu zen Aberri Eguna.

202. Odon Apraiz pertsonaia esanguratsua Gasteizen (GAS-014/021)

Euskararen egoera Frankismoan. Odon Apraiz oso pertsonaia interesagarria izan zen. Euskaltzaindiaren sorreran parte hartu zuen eta bere anaia, Angel Apraiz, Eusko Ikaskuntzaren sortzaileetako bat izan zen.

203. 60. hamarkadako ikastolen sorrera (GAS-014/022)

60. hamarkadan hasten da berriro euskararen aldeko mugimendua. Ikastolak.

204. Gasteizko euskararen bilakaera ikusgarria (GAS-014/023)

Gasteizen euskararen bilakaera ikusgarria izan da. Mende askotan zehar jende asko "tematu" da euskararen alde lanean.

205. Euskararen aldeko mugimenduak (GAS-014/025)

Lehenengo ikastoletako zailtasunak. Lehenengo institutua sortzeko ere borroka latzak egon ziren. Aipatzekoa da guraso erdaldun askoren lana. Euskararen presentzia aldarrikatzeko mugimendu sozial handia egon da Gasteizen.

206. Erabilerak ematen dio kalitatea euskarari (GAS-014/027)

Gasteizko euskaldun gehienak eskoletan edo euskaltegietan euskaldundu dira, familiatik kanpo, eta Arabako berezko hizkeraren transmisioa galdu da. Kanpotik ere jende asko etorri da eta sekulako aniztasuna dago. Erabilera bultzatzea lortu behar da, euskara erakargarria eginez.

207. Euskararekin lotutako anekdota (GAS-014/028)

Gasteizko denda batean gertatutako anekdota bat.

208. Ikastola, euskaraz ikasteko modu bakarra (GAS-015/004)

Umetan Zornotzako Andra Mari ikastolan ibili zen. Sasoi hartan euskaraz ikasteko modu bakarra zen. Kaleko giroa nahasiagoa zen: ikastetxe erlijiosoetan edo publikoetan ikasten zutenak gazteleraz ikasten zuten.

209. Txikitan Gasteizen bizi izan zen (GAS-015/005)

25 urtera arte bizi izan zen Zornotzan. Jaio eta gutxira, aitaren lanbideagatik, Gasteizera joan ziren bizitzera. 5-6 urte eman zituzten han eta gero berriz bueltatu ziren Zornotzara. Orduko oroitzapen batzuk baditu, ikastolakoak batez ere. Ikastolaz aldatzearen "traumatxoa" ere gogoan du.

210. Bertsolaritzatik kantagintzara jauzia (GAS-015/007)

Bertsolaritzarako zaletasuna ikastolan etorri zitzaion, maisu batek irakatsitako bertso zaharrei esker. Geroago Jon Lopategi bertsolaria klaseak ematera joan zitzaien. Bertsolaritzan hasi baina musikaren bidea hartu zuen geroago Mikelek.

211. Kantuan nola hasi zen (GAS-015/008)

Nerea Zuloaga santutxuarrarekin hasi zen kantuan. Bi urtez ibili ziren, batez ere iparraldeko kanta zaharrak abesten. Mikelek bere kabuz bide berriari ekitea erabaki zuen eta gitarra jotzen ikasten hasi zen. Horrela atera zuen bere lehen diskoa, erdi ezkutuan egindako prozesu baten emaitza.

212. Lehenengo diskoaren arrakasta (GAS-015/009)

'Haitzetan' (1997) diskoa Arkaitz Estiballesekin batera ekoiztu zuen eta harrera oso ona izan zuen. Horren atzetik etorri zen 'Badira hiru aste' (1998) diskoa eta Bizkaitik kanpo kontzertuak ematen hasi ziren.

213. Gasteizera irakaskuntzagatik etorri eta musikagatik gelditu (GAS-015/010)

Olabide ikastolan lana atera zitzaiolako joan zen Gasteizera bizitzera. Ordurako bertako mugimendu kulturalak erakartzen zuen eta bazituen lagunak ere Gasteizen. Bi urtez ingeleseko irakasle gisa aritu zen ikastolan. Asko gozatu zuen haur txikiekin lan egiten, baina hori ez zela bere lekua eta musikari dena eman behar ziola sentitzen zuelako utzi egin zuen.

214. Proiektu artistikoak elkarlanean (GAS-015/012)

Gasteizen bazituen lagunak Mikelek eta batez ere gau giroan ateratzen ziren proiektu berrietarako ideiak. 'Espilue' (2000) diskoak sekulako arrakasta izan zuen, baina Mikelek nahita eten egin zuen inertzia hori, Bingen Mendizabal eta Kirmen Uriberekin bide berriak arakatzeko. 'Bar Puerto' (2001) eta 'Zaharregia, txikiegia agian' (2003) izan ziren elkarlanean sortutako bi disko-liburuak.

215. Gasteizera iritsitakoan euskaldun sentitu zen han ere (GAS-015/013)

Mikel bigarrenez Gasteizera iritsi zenean, euskarak bazeukan bere presentzia Gasteizen. Ez zuen sentitu hiri erdaldun batera heldu zenik, euskaldun sentitu zen Gasteizen.

216. Gasteiztar sentitzen da Mikel (GAS-015/017)

Gasteiztar sentitzen da Mikel, batez ere sortu duen harreman sarean gustura sentitzen delako. Euskara ere presente egon behar da bera bertan eroso egoteko. Iritsi zenean eskuzabaltasuna topatu zuen Gasteizen.

217. Gasteizen euskaraz bizi al daiteke? (GAS-015/019)

Mikel saiatzen da bere eskura dagoena egiten euskaraz bizitzeko. Egia da Gasteizen euskaldun izateak ahalegina eskatzen duela eta batzuetan nekagarria da.

218. "Konplexuz betetako euskaldun bat sekulako tragedia da" (GAS-015/020)

Euskararen kontrako jarrera gutxitu egin dela iruditzen zaio. Hala ere, gaur egun euskaldunon etsairik handiena geure burua da. Konplexuz betetako euskaldun bat sekulako tragedia da, Mikelen ustez.

219. Musikaren bidez euskaldundu (GAS-015/022)

Jende askok eskerrak eman izan dizkio bere kantei esker euskarara hurbildu delako. Musikak sekulako boterea du.

220. Ikasi euskaraz baina gozatu gazteleraz? (GAS-015/023)

Euskararen erabilera sustatzeko, hezkuntza beharrezkoa da, baina euskaraz sentitzen irakastea oso zaila da, eta horretan musikak lagundu dezake. Askotan gaztetxoek euskaraz ikasten dute baina gazteleraz disfrutatu eta hori erroz aldatu behar da, Mikelen ustez.

221. Garrantzitsua da etorkinek euskaraz bizi den toki batera datozela sentitzea (GAS-015/024)

Jatorri aniztasun handia dago Gasteizen. Oso garrantzitsua da kanpotik datorrenak euskaraz bizi den toki batera datorrela sentitzea. Askotan etorkinak gaztelerazko heziketara bideratzen dira eta horrek etorkizunerako borroka bat dakar ume horientzat.

222. Euskara batua eta euskalkia erabiltzen ditu (GAS-015/026)

Batua eta euskalkia bakoitza noiz erabiltzen duen kontatzen du.

223. Euskararekin lotuta, Eskozian gertatutako anekdota barregarria (GAS-015/028)

Euskararekin lotuta, Eskozian gertatutako anekdota barregarria.

224. Tabernako mundu magikoa (GAS-015/031)

Gasteizko 'Kupela' taberna dauka Mikelek. Idealizatuta dauka tabernako giro magikoa. Lagun arteko txoko euskaldun eta musikal bat sortzeko gogoa izan du beti.

225. Musikari bizitzatik gutxien gustatzen zaiona (GAS-015/032)

Bi alde ditu bere lanak: batetik, arrakasta beharrezkoa da aurrera egiteko; bestetik, oihartzun horrek oso agerian uzten zaitu eta intimitatea ere galtzen duzu. Hala ere, musikaren alderik txarrena lanik ez izatea da. Zorionez berak ez du lan faltarik izan.

226. Ezaguna izatea batzuetan zaila da (GAS-015/033)

Mikel saiatzen da pertsona normala izaten baina batzuetan ez da erraza. Jendea hurbildu izan zaio istorio hunkigarriak kontatuz eskerrak ematera; horrek asko betetzen du baina bere alde arriskutsua ere badu.

227. Txaloen arriskua (GAS-015/034)

Apala izaten saiatzen da baina batzuetan "mozkortu" egin ahal zara txaloekin. Droga latza omen dira txaloak.

228. Harrokeriaz bizitzea porrot bat da (GAS-015/036)

Apala izaten saiatzen da Mikel. Harrokeriaz bizi dena baino pertsona erratuagorik ez dago, bere iritziz. Momentu batzuetan puztu zaitezke, baina berriz zeure tamainara itzuli behar zara. Bizitzan funtsezkoena pertsona ona izaten saiatzea da.

229. Familian euskaraz ikasten lehena (GAS-016/003)

Gurasoek ez zekiten euskararik, ezta anai-arrebek ere. Hortaz, Blanca izan zen familiako lehena euskalduntzen. Osaba bat, ordea, oso abertzalea zuen.

230. Euskara Euskal Jaietan ezagutu (GAS-016/005)

Izeba-osabekin mendira joaten ziren Blanca eta senideak. Behin, Mairuelegorretako Euskal Jaietara joan ziren, eta bertan entzun zuen euskara lehen aldiz.

231. Frankismo garaian euskara estalita (GAS-016/007)

Moja eskolan ikasi zuen Blancak, dena gaztelaniaz. Hasiera batean, Frankismo garaia zela eta, gaztelaniak euskara erabat estalita zuen, eta ez zekien beste hizkuntza bat existitzen zenik ere. Hamalau urterekin euskara ikasten hasi zen 'Jalgi Hadi' programan, Ikasbidea ikastolaren bitartez.

232. Euskal Filologia egiteko erabakia (GAS-016/009)

Lau urtez euskara ikasten ibili ondoren, unibertsitate ikasketak Gasteizen egitea erabaki zuen, Euskal Filologia egitea.

233. Koldo Mitxelenaren ikasle (GAS-016/013)

Koldo Mitxelena Salamancako katedraduna zen, eta Letren Fakultatea sortzeko eskatu zioten. Oso irakasle gutxi ziren hasiera batean, ondoren joan ziren irakasleak prestatzen. Mitxelenak bi irakasgai ematen zituen.

234. Euskara batua: Villasante eta Mitxelena (GAS-016/027)

Euskara Batuaren sorrera. Lekuona, Villasante eta Mitxelena.

235. Euskara Batuak hamaika gatazka bildu (GAS-016/029)

Euskara Batuaren sorrerak hamaika gatazka bildu zituen bere barnean. Bizkaiera bestelako euskalkia zelako ustea zegoen garai batean oso zabaldurik, eta Mitxelenak bere gain hartu zuen hipotesi hori gezurtatzeko lana.

236. Euskara batua: artifizial izatetik euskalki izatera (GAS-016/032)

Euskara Batua sortu zenean, Euskaltzaindiaren arauek gidatu zuten hasierako transizio garaia. Gaur egun, ordea, jende askoren ama hizkuntza eta euskalkia ere bada. Blancaren iritziz bi euskara batu daude gaur egun: testuinguru formaletan erabiltzen dena eta norbanakoen hizkuntza edo hizkera naturala dena.

237. Lazarraga 2004. urtean agertu zenekoa (GAS-016/036)

Lazarragaren testuaren agerpena izugarria izan zen, orduan zituzten hainbat teoria gezurtatu baitzituen, eta hipotesi berriak egiteko aukera eman. Arabako euskaran idatzitako testua, 1587 inguruan datatu dute. Lazarragaren testuen artean Estibaliz Sasiola zelako handiki baten poemak ere topatu ziren.

238. Euskarazko lehen dotrina (GAS-016/039)

XVI. mende bukaerako bi dotrina topatu dira, Sancho de Elsorena eta Betolazarena.

239. Arabako euskara inguruko lurretara zabaldu zen (GAS-016/042)

XVI. mendean Gasteiz oso garrantzitsua izan zen, penintsulara sartzeko bidean baitzen. Mrkataritza gune garrantzizkoa ere bazen, eta gainera, eliz barrutia izan zen Erdi Aroan. Ondorioz, bertako euskarak inguruko lurraldeetan eragina izan zuela pentsatzen da, esaterako, Oñatin.

240. Nondik dator euskara? (GAS-016/046)

Orain arteko metodologia ez dago hain garatuta, eta ezin daiteke jakin euskara nondik datorren, ezta zein ahaide dituen ere. Geneei begiratzen diete askok, baina geneetan hizkuntza gaitasuna agertzen bada ere, hizkuntza zehatza ez dago jakiterik. Hau ikusirik, zero hipotesia edo hipotesirik merkeena euskara bertakoa dela defendatzea izango litzateke.

241. Isilpeko ikastolak, Olabide eta Umandi (GAS-016/052)

Blancak osaba abertzale bat izan zuen, Barandiaranekin ikasten ibili zena. Gasteizko euskalduntze prozesuan Ikastola eta Umandi nabarmentzen ditu Blancak.

242. "Eguneroko zerbait bihurtu da euskara jende askorentzat" (GAS-016/054)

Kanpotik jende asko joan zen Gasteizera bizitzera, 50-60. hamarkadan batez ere. Horren ondorioz, euskara entzuten hasi zen Gasteizen. Euskararen presentzia handituz joan da ordutik, batez ere euskara irakaskuntzan sartu zenetik.

243. Euskararik entzuten al zenuen txikitan? (GAS-016/056)

Euskara ez zen eguneroko kontua orduko Gasteizen, kanpoko jendearena batik bat. Izenak, ordea, euskaldunak baziren. Kanpoko zerbait balitz bezala bizitzen zuten hasieran. Beranduago hasi zen 'euskaldun' sentimendua garatzen.

244. Gasteizen euskaraz bizi al daiteke? (GAS-016/057)

Eremuaren arabera posible da Gasteizen euskaraz bizitzea, askotan, gainera, saltzaileak eta langileak gazteak dira, euskaldunak.

245. Orotariko Euskal Hiztegiko lana I (GAS-016/059)

Orotariko Euskal Hiztegian lanean aritu zen, bildutako corpusa ordenagailura pasatzen.

246. Kultura sailburu lanetan (GAS-016/062)

Gobernuan krisi egoeran sartu bazen ere, jende langilea egon zela azpimarratzen du eta lan handia egin zela.

247. Zer da euskara zuretzat? (GAS-016/065)

Lehen hizkuntza gaztelania badu ere, lehenengo tokian jarri du euskara.

248. Gasteizko Toki Eder ikastolaren sorrera (GAS-018/004)

Gasteizko Toki Eder ikastolan ibili zen eta bertan ikasi zuen euskaraz. Bere gurasoen erabaki horrek izaera politiko bat ere bazeukan atzean, nolabait. Toki Eder ikastolaren historia azaltzen du.

249. Gurasoek zergatik erabaki zuten Naroa ikastolara eramatea (GAS-018/005)

Gurasoek Naroa ikastolara eramatea erabaki zuten, beraien etxetik urrun egon arren. Erabaki horrek izaera politiko bat ere bazeukan atzean, nolabait. Naroa gerora saiatu izan da gurasoek euskara ikas dezaten baina ez du lortu. Beraz, euskarara ikastolaren bidez hurbildu zen Naroa. Adibidez, etxean ez dute sekula telebista euskaraz ikusi.

250. Gaztetan, eskolan euskaraz eta kalean erdaraz (GAS-018/008)

Ikastolan, gelatik kanpo ere euskararen erabilera nahiko altua zela uste du. Institutu garaian, aldiz, klasean euskaraz egin arren handik kanpo gaztelerara jotzen zuten. Kuadrillan saiatzen ziren tarteka euskaraz egiten baina ez zen erraza izaten.

251. Gasteizen euskaraz bizi al daiteke? (GAS-018/011)

Jende euskaldun asko dagoela "ezkutuan" uste du. Euskaraldiak aldaketa txikiak ekarri ditu. Gaur egun oraindik Gasteizen euskaraz bizitzea zaila dela pentsatzen du.

252. Euskararekiko kontzientzia nola garatu zuen (GAS-018/014)

Institutuan euskararekin lotutako ekintzetan parte hartzen hasi zen. Baina benetako kontzientzia aldaketa unibertsitatean zegoela etorri zen. Euskal Herriko beste leku batzuetako euskaldunekin alderatuta, txiki sentitu ziren gasteiztarrak.

253. Gasteizko euskararen bilakaera (GAS-018/015)

Gaur egun aldatu da Gasteizko euskaldunekiko aurreiritzia. Gainera, euskararen sustapenean Gasteiz erreferente bihurtzen ari da. Mintzalaguna

ezagutzea bultzada handia izan zen beretzat. 10 urte beranduago bertan jarraitzen du.

254. Euskararen erabilera aisialdian (GAS-018/016)

GEU elkarteak ikusi zuen Gasteizen ez zegoela aisialdi talderik euskaraz eta horretan dabiltza. "Igandeak jai" izeneko proiektua jarri zuten martxan eskoletan, familian euskara sustatzeko. Aisialdiko hezitzaileentzako ikastaroak ere ematen dituzte. Elkarlanean euskarazko aisialdi mapa osatu beharra dago. Euskara esparru formaletik atera behar da.

255. Euskarazko ekintzek topatzen dituzten oztopoak (GAS-018/017)

Euskarazko ikastaroak askotan leku eta ordutegi txarretan programatzen dira eta horregatik ez da euskaldun asko apuntatzen. Euskararekin ez da lortu feminismoak lortu duen zehar-lerrotasun hori.

256. GEU elkartearen historia (GAS-018/018)

1992an sortu zen GEU elkartea euskararen erabilera sustatzeko. Hasiera batean aldizkariari eskaini zioten denbora gehiena, nahiz eta aldi berean ekintza kulturalak antolatzen zituzten. Gerora, 2009an, aldizkaria bertan behera geratu zenean, hasiera berri bati ekin zioten. Mintzalaguna kudeatzeko ardura ere hartu zuten. Ordutik handituz joan da elkartea eta gaur egun hainbat proiektutan dihardu lanean.

257. Hala Bedi irratiaren garrantzia (GAS-018/020)

Hala Bedi irratian ibilia da. Paper oso garrantzitsua jokatu du Gasteizen, batez ere horren bueltan sortu den giroagatik. 'Zebrabidea' irratsaioa.

258. Euskarari dagokionez hezkuntzan eman den aldaketa (GAS-018/021)

Alde Zaharreko Ramon Bajo ikastetxean urte gutxian eman dute B eredutik D eredura aldaketa eta guraso elkarteak garrantzi handia izan du horretan. Atzerritar askok euskararen aldeko hautua egiten dute eskoletan.

259. Mintzalagunaren helburua (GAS-018/023)

Jende askok ikuspegi praktikotik ematen du izena mintzalagunean, hau da, azterketak gainditzeko helburuarekin. Naroaren ustez ez da hori helburua, euskal giro batean murgiltzea baizik.

260. Euskaraldia nola bizi izan zuen (GAS-018/024)

Naroak eta bere bi lagunek beraien artean euskaraz egiteko erabaki kontzientea hartu zuten, baina askotan zaila da. Euskaraldia nola bizi izan zuen.

261. Euskararen historia Gasteizen (GAS-018/026)

Olabide ikastolaren sorrera. 90. hamarkadan GEU elkarteak garrantzia handia izan zuen. Errexala elkartea. Euskaltegiak. Oihaneder Euskararen Etxea. Etorkizunean ere ikusten ditu mugarri garrantzitsuak.

262. Gasteizko euskararen ezaugarriak (GAS-018/029)

Naroaren ustez, Gasteizen bakoitzak bere euskara dauka. Berak batua ikasi du eta batzuetan gaztelerarekin tartekatzen du. Beste euskalkiekin ere nahasten dute batzuetan.

263. Zer da euskara Naroarentzat? (GAS-018/030)

Euskara ez da hizkuntza bat bakarrik Naroarentzat, mundua ikusteko modu bat da. Nortasun bat ematen dio. Erantzukizun bat sentitzen du euskararekiko.

264. Hizkuntza ohiturak aldatzea ez da erraza (GAS-018/034)

Lan eremuan gazteleraz egitea oso zaila egiten zaio, eta alderantziz, esparru intimoan euskaraz egitea ere kostatu egiten zaio.

265. Gazteak euskarara nola hurbildu (GAS-018/035)

Euskarabenturan parte hartu du laguntzaile moduan eta oso positibotzat jotzen du, gazte askori begiak ireki zizkielako. Mundu eleanitz eta global honetan, gazteak euskarara hurbiltzea erronka handia dela uste du.

266. Ikasitako lehen euskal kanta (GAS-019/003)

Gurasoek euskararik ez dakiten arren, anai-arreba guztiek ikastolan ikasi dute. Errobiren kanta bat du euskararen lehenengo oroitzapena. Osabak irakatsi zion kanta hori.

267. Euskaraz ikasteko erabakia (GAS-019/004)

Umandi ikastolan ikasi zuen euskaraz, eta gero Olabide ikastolan. Goi mailako ikasketei dagokienez, kazetaritza ikasi zuen Euskal Herriko Unibertsitatean, euskaraz.

268. Umandi ikastolatik Olabiderako jauzia (GAS-019/006)

Umandi ikastolako ikasle zenean euskaraz hitz egiten zuen Josunek, baina irakasleak euskaraz egiteko esanez aritzen ziren. Olabide ikastolan, berriz, errealitate soziolinguistiko desberdina topatu zuen, non gehienak etxetik euskaldunak ziren. Ordutik egunerokotasunean sartu zuen euskara Josunek. Unibertsitate ikasketak egitean ezagutu zituen euskalkiak.

269. Olabiden euskararen kontzientzia piztu (GAS-019/008)

Umanditik Olabide ikastolara joatean hizkuntza ohiturak aldatu zituen. Olabiden euskararen erabilera bultzatzeko Artzeren esaldi bat zegoela gogoratzen du: "hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako baizik".

270. Lehenengo hitza euskaraz (GAS-019/010)

Gaur egun egunero hitz egiten du euskaraz, bai etxean eta bai lanean. Familian, ilobekin eta nebekin egiten du euskaraz. Lan munduan euskaraz egin du beti, euskara bera zelako lan tresna. Euskaraldiak egindako lana azpimarratzen du, lehen harremana gaztelaniaz egiten zuenekin orain euskaraz egiten duelako.

271. Euskaraz bizi da Gasteizen (GAS-019/012)

Egunerokotasunean, lanean eta lagunekin, euskaraz bizi da Josune. Euskararen kontrako jarrera duten tabernetara ez da joaten. Asko eskertzen du tabernakoak euskaldunak izatea.

272. Euskararen egoera hobera doa (GAS-019/014)

Euskara egoera ezberdinetan ezagutu izan du Josunek Gasteizen. Euskaraz bizitzeko erabakia hartu zuenean beste testuinguru bat ezagutu zuen. Aurrera egin du, eta guraso gazte askok euskara transmititzen dute.

273. Euskararen erabilera Gasteizen (GAS-019/016)

Josunek 20 bat urte zituenean, zonaldeka euskararen erabilera aldatu egiten zen. Esate baterako, alde zaharrean bizirik zegoen euskara, handik kanpo gutxiago.

274. Gasteiz eta euskarazko kultur eskaintza (GAS-019/018)

Aisialdiari dagokionez, kulturgintzan mugitzen da Josune. Principal antzokian euskarazko kultur eskaintza ez dago orekatuta gaztelaniazkoarekin. Bestetik, kultur eskaintza egiten duten areto alternatibo asko dago Gasteizen.

275. Antzerkigintza Gasteizen (GAS-019/020)

Pez Limboz gain, Gasteizen antzerkigintza eta kulturgintzan dabiltzan batzuk aipatzen ditu Josunek pasarte honetan, hala nola, Teatro Paraiso, Baratza antzokia, Garazi Lopez de Armentia, Mostrenka, Ane Gebara...

276. Kultur mugimendu handia (GAS-019/022)

Jon Basaguren, Libe Garcia de Cortazar (Izaki Gardenak), Betagarri, Ziklone, Mikel Urdangarin... Idazleak.

277. Euskararen aldeko elkarte gasteiztarrak (GAS-019/024)

GEU elkartea eta aldizkaria eta ALEA aldizkaria nabarmentzen ditu Josunek. GEU elkartean aritu zen Josune kultura eta aisialdiko programa egiten. Hala Bedi, Oihaneder.

278. Olabidekoa bai, Umandikoa ere bai (GAS-019/026)

Olabidek urte mordoko ibilbidea du euskalgintzan. Josunek Olabiden ikasi zuen, baina soilik lau urtez, aurretik Umandin ikasi baitzuen.

279. Gurasoak erdaldunak baina euskaltzaleak (GAS-019/028)

Guraso biak erdaldunak izan arren, euskararen alde egin zuten eta Josune eta haren neba ikastolara eraman zituzten, euskaraz ikas zezaten. Hori ikusirik, harrigarria egiten zaio Josuneri gaur egungo gazteek euskararik ez jakiteak, are egoera zailagoan ikasi baitzuen berak.

280. Lehen antzezlana euskaraz egin zuen (GAS-019/029)

Euskararen aurkakoak entzun izan ditu Josunek. Egin zuen lehen antzezlana euskaraz izan zen, eta euskaraz ez zekitenak ez ziren obra ikustera joan,

gaztelaniaz noiz egingo zain. Kotrara, euskaldunak gaztelaniazko lanak ikustera joaten dira, euskaraz egin daitezen eskatu gabe.

281. Gasteiztarra eta euskalduna? (GAS-019/030)

Jende askok galdetu izan dio hori Josuneri, gasteiztarra eta euskalduna izanagatik harrituta. Euskararekiko jarrera aldatu dela uste du.

282. Euskaraldiari esker, txip aldaketa (GAS-019/032)

Askotan itxura fisikoagatik bestea euskalduna den edo ez jakiten saiatzen gara. Euskaraldiari esker, Josunek txipa aldatu du eta inor ez epaitzen saiatzen da.

283. Ikasketa guztiak euskaraz (GAS-019/033)

Ikastolan ikasi, eta unibertsitate ikasketak euskaraz egin zituen, baita Magisteritza musikala ere. Kazetaritzako lehenengo bi urteetan euskarak ez zuen behar besteko presentzia, irakasle batzuek euskara maila nahikorik ez baitzuten.

284. Antzezle eta irakasle (GAS-019/035)

Irakasle lanetan ere aritu da Josune, ordezkapenak egiten Araban.

285. Euskara eskolatik ateratzeko erabakia (GAS-019/037)

Askotan euskara eremu formalean gelditu, eta eguneroko bizitzan gaztelania erabiltzen du jende askok. Josune euskaraz bizi da, baina Umandiko ikaskideekin elkartzen denean, hizkuntza nagusia gaztelania izaten da.

286. Egindako lana euskararen erabileran islatu beharko litzateke (GAS-019/039)

Euskararen alde lan handia egiten da, ta euskararen erabileran lan hori islatzea gustatuko litzaioke Josuneri. Euskara norberaren nortasunaren parte sentiarazteko giltza zein ote?

287. Euskara eta gaztelaniaren arteko oreka kazetaritzan (GAS-019/041)

Komunikabideetan lana normalean elebitan egin ohi den arloa da, baina gaztelaniara jotzen da askotan, bi aldeek ulertzen duten hizkuntza delako. Galderak egiterako garaian, adibidez, euskaraz dakien norbaiten bila egoten direnak gutxi izaten dira.

288. Kazetaritzan ere hausnartzea komeni? (GAS-019/043)

Askotan presaka egiten da lana kazetaritzan, hizkuntza irizpideak kontuan izan gabe. Zergatik eskatu euskaldun bati gaztelaniaz egiteko? Jarrera ona duten kazetari asko daude, baina hizkuntzen auziaren inguruan gehiago hausnartu beharko litzateke.

289. 'Kakatzarra' arte eszenikoen inguruko programa (GAS-019/045)

'Araba hizpide' izeneko magazinean hilabetean behin iritzi zutabea egiten du Josunek, Hala Bedi bin. Iaz, Hala Bedi baten, 'Kakatzarra' izeneko saioa egin zuen, arte eszenikoen ingurukoa. Gaur egun bigarren edizioak darrai.

290. Aktore lana: zaletasunetik ogibidera (GAS-019/046)

2011. urtetik izan da arte eszenikoen zalea, baina profesionalki aktore lanetan aritu denetik bi urte igaro dira. TAEn ikasketak egin zituen bi urtez.

291. Pez Limboko aktore (GAS-019/047)

Une honetan Pez Limbo antzerki-taldearekin ari da lanean. Oxido lanean parte hartu zuen komunikazio kontuekin, eta 'Koxkak' izeneko lanean aktore moduan dabil.

292. 'Oingoan bai' antzezlana (GAS-019/048)

Zurrunbilo izeneko emanaldiak antolatu zituen Oihanederrek Baratza antzokiarekin elkarlanean. Bertan aurkeztu zuan 'Oingoan bai' lana.

293. Ipuinak kontatzeko gakoak I (GAS-019/050)

Ikasleekin lanean aritzean, ipuinaren 3 zatiak garbi dituzte umeek. Antzezle moduan, ordea, aktore gisa izandako esperientzia erabiltzen du ipuinak kontatzeko.

294. Ipuinak kontatzeko gakoak II (GAS-019/051)

Formula magikorik ez dago ipuin kontalaritzan, barnekoa askatzea, gorputza erabiltzea arnasa ondo hartzea. Eszenak, argazkiak, izoztutako eskulturak erabiltzea...

295. Umeek beraien antzezlanak egitea garrantzitsua da (GAS-019/053)

Umeekin antzerkia lantzean, gorputza nola erabili, espazioa nola banatu, nola erreakzionatu... lantzen dute, batez ere, jolasen bitartez. Kontatzeko modua lantzen dute testua baino gehiago.

296. Egiturarekin jolastu (GAS-019/055)

Askotan Josunek ipuina ez du ordenean kontatzen, modu horretan, irudiekin jolastu eta umeek "irakasten" diote ordena egokia zein den, zein formula erabili behar den eta zergatik...

297. Erabakitzeko askatasuna (GAS-019/057)

Umeek parte hartu nahi ez dutenean, askatasuna ematen die Josunek eroso egongo diren bideren bat topatzeko.

298. Zer da euskara zuretzat? (GAS-019/059)

Bizimodua, bere zati bat, eguneroko tresna, bere hizkuntza.

299. Amonak euskaraz egitea debekatu (GAS-020/002)

Gasteizen jaio zen, baina Mendigurengoa da Aitor. Ama mundakarra, aita Mendigurengoa. Amak euskara ahazturik zuen, eta lan bila Arabara etorri eta Aitorren aita (erdalduna) ezagutu zuenean, euskara alboratu egin zuen. Gainera, amonak euskararik ez zuen ulertzen, eta debekatu egin zion Aitorren amari euskaraz egitea, berak dena uler zezan.

300. Euskara ez maitatzetik, euskara irakastera (GAS-020/004)

Aitorrek euskararekin izan zuen lehen kontaktua ikastolan izan zen. D eredua bazen ere, ez zuen euskara batere maite, oso arrotza egiten zitzaion. Ingeles Filologia egin zuen, eta gaur egun euskara irakaslea da.

301. Apurka-apurka euskara maitatuz (GAS-020/006)

Aitorrek hamaika urte zituela, A ereduko ikastetxean sartu zuten gurasoek, gurasoek Gasteizen zuten likor-dendatik hurbil. Ingeleseko eta euskarako irakaslea, Miren, oso irakasle ona zen eta hizkuntzekiko zaletasuna garatu zuen Aitorrek. Euskaraz gutxi bazekien ere, ikaskideek baino gehiago zekien, eta euskararekin zuen harremana hobetu zen. Ingeles Filologia ikasi zuen, Euskal Filologia egiteko nahikoa mailarik ez omen zuelako. Era berean, unibertsitate ikasketekin bateratu zuen Hizkuntza Eskolan euskara ikastea.

302. Euskara eskolatik ateratzen hasi zen (GAS-020/007)

Duranan zegoen Ikasbidea ikastolara joan zen, baina 'kartzela' batean bezala sentitzen zen. Euskara gorroto zuen orduan, baina gero institutuan hasi eta euskara maitatzen hasi zen. Hizkuntza Eskolan 4. maila asko kostatu zitzaion gainditzen. Hizkuntza eskolan ikasten ari zela, ikaskideekin eskolatik kanpo euskaraz egiten hasi zen, euskara kalera ateratzen.

303. Euskara: eskolatik kalera eta kaletik etxera (GAS-020/008)

Hizkuntza Eskolan euskara ikasi ondoren, kalean ere euskaraz hitz egiten hasi zen Aitor. Haren arreba ere euskaltegira joaten hasi, eta Aitorrekin euskaraz hitz egiten hasi zen, hasiera batean igandetan, denborarekin, egunero. Anaia, ordea, ez zen eroso sentitzen euskaraz hitz egiten, baina konfiantza lortu bezain pronto, euskaraz egiten hasi zen.

304. Mendiguren euskalduntzen (GAS-020/009)

Mendigurenen 23 bat pertsona bizi dira gaur egun. Aitorren etxean euskaraz egiten da, eta lagunekin ere euskaraz egiten saiatu zen. Lagunek ez zuten euskaraz egiteko erraztasunik, Aitor eurengana euskaraz zuzentzen zen, baina lagunen artean erdaraz hitz egiten zuten. Ulermena garatzen joan ahala, euren artean ere euskaraz egiten hasi ziren.

305. Gasteizko dendan ere euskaraz (GAS-020/011)

Hizkuntza ohiturak errotik aldatu zituen Aitorrek, baita bere anai-arrebek ere. Amak begi onez ikusi zuen hau. Likore-denda bat zuten gurasoek Gasteizen, eta anai-arrebek bertan laguntzen zutenean, euskaraz egiten zuten bezeroekin. Lehenengo hitza gaztelaniaz izaten zen, baina 'agur' esaten zutenekin euskaraz egiten zuten. Aitak dendan gaztelaniaz egiteko eskatu zien.

306. Zer da hizkuntza ohiturak aldatzearen zailena? (GAS-020/013)

Hizkuntza ohiturak aldatzea ez da erraza, eta garai hartan ez zuten ongi aterako zelako ziurtasunik, oso prozesu luzea izan zen. Diziplina eta konstantzia handia eskatzen du.

307. Zergatik aldatu zenituen hizkuntza ohiturak? (GAS-020/015)

Hizkuntza, kultura eta politika kontzientziagatik erabaki zuen Aitorrek hizkuntza ohiturak aldatzea, eta gaztelaniaz bizitzetik euskaraz bizitzera pasatzea. Herrian ere euskaraz bizitzen hastea ez zen ahoz hartutako erabaki bat izan, baizik eta dinamika aktibo ba.

308. Zein da hizkuntza ohiturak aldatzeko giltza? (GAS-020/017)

Aitorren iritziz, hizkuntza ohiturak aldatzeko gakoa konpromezua da, eta erabilera. Euskaraz hitz egitea funtsezkoa da euskaraz bizitzen hasteko, eman beharreko pausua.

309. Hasieran, deseroso sentitzen al zinen euskaraz? (GAS-020/019)

Hitz egin aurretik, buruan ditugun eskemak hizkuntza batetik bestera aldatzea oso zaila da. Aitorren iritziz, euskaldun berriek euskal hitzak erabili arren, erdarazko paradigmak dituzte barneratuta.

310. IKA euskaltegiko langile (GAS-020/021)

Ingeles irakaslea izateko asmoa zuen hasiera batean. Ingalaterran egon zen denboraldi bat ikasketak amaitutakoan, eta itzulitakoan AEKn glotodidaktika ikastaroa egin eta euskara eskolak ematen hasi zen, bertako hizkuntza euskara delako. 20 urte daramatza IKAn lanean.

311. Gasteizko euskaltegien sorrera (GAS-020/023)

Euskaltegian lan egitea milintantzia lana zen, lan orduez gain, aparteko lanak ere bazeuden, kultur ekintzak etab. antolatzen. Konpromezu handiko lana zen, euskararen presentzia oso txikia baitzen garai hartan.

312. Ikasle profila asko aldatu da (GAS-020/025)

Metodologia komunikatiboa erabiltzen dute gaur egun euskaltegian, euskararen ezagutzaz gain, erabilera ere bultzatzen duena, hizkuntza euren parte bilakatuz. Aitor euskaltegian hasi zen garaian oso bestelakoa zen egoera, euskara ikasi nahi baitzuen gehiengoak, euskaraz bizi. Gaur egun agiriak eskuratzeko joaten dira ikasle gehienak.

313. "Euskara gehiago entzun beharko litzateke" (GAS-020/027)

Garai batean gutxiago entzuten zen euskara kalean. Gaur egun, gehienbat, gurasoek erabiltzen dute umeekin hitz egiteko, baina gazteen artean ia ez da erabiltzen. Hala ere, presentzia handia du euskarak Gasteizen. Gazteak ohituta daude D ereduan ikasten, eta euskara ikasgai ikusten dutela uste du Aitorrek, eskola eremuarekin lotzen dutela.

314. Euskara eta aisialdia Gasteizen (GAS-020/029)

Soka-tiran ibili da Aitor urte mordoan, eta euskaldunen artean euskaraz egiten zuten bertan, ahalik eta gehien. Entrenatzaileekin ere ahal zena euskaraz egiten zuten, euskara lehenetsiz.

315. Euskarazko kultur eskaintza zabala (GAS-020/031)

Garai bateko egoerarekin alderatuz, gaur egungo euskarazko kultur eskaintza askoz zabalagoa da. Aisialdiko eremuan sartzen ari da eta erreferente asko euskaldunak dira. Oihaneder eta Hala Bedi eta Alea azpimarratzen ditu.

316. Lehen ikasleekin gertutasun handiagoa (GAS-020/033)

Aitor euskaltegian hasi zenean, ikasleekin zuen giroa oso gertukoa zen. Ohikoa zen denek elkarrekin ostiraletan euskaraz poteatzea. Gasteizko jaietan oso giro euskalduna egoten zen.

317. Euskal giroa tabernetan eta gaztetxean (GAS-020/035)

Taberna batzuek lan handia egin dute euskal giroa bultzatzeko, esaterako, Parralek, zeinak euskarazko emanaldiak eta kontzertuak antolatzen dituen. Gaztetxearen lana ere azpimarratzekoa da.

318. Euskara goxotzea eta erakargarria bilakatzea (GAS-020/037)

Betagarri musikal taldeak lan handia egin du Gasteizen euskararen alde. Euskara goxoa eta erakargarria izatea lortu dute. Hertzainak taldea. Idazleak.

319. Hizkuntzarekiko jarrera ona izatea da giltza (GAS-020/039)

Garrantzitsua da jakitea Gasteizen euskararen alde eta euskal kulturaren alde euskaraz ez dakien jende askok egin duela, jarrera kontua ere bada.

320. Gasteizen euskaraz bizi al daiteke? (GAS-020/041)

Euskaraz bizi zaitezke euskaraz Gasteizen, baina soilik euskaraz bizitzea oso mugaturik dago.

321. Euskararekiko jarrera aldatu al da? (GAS-020/043)

Euskararen kontrako jarrera lehen ohikoagoa zen gaur egun baino. Aitorrentzat euskararen egoera neutroagoa da orain.

322. Gasteizek duen fama erdaldunarekin, zer egin? (GAS-020/045)

Gasteizen 'erdaldun' irudia oso zabalduta dago, batez ere Gasteiztik kanpora bizi direnen artean. Gutxinaka-gutxinaka euskalduntzen ari da, eta lan handia dago horren atzean. Lehenengo hitza euskaraz egiten saiatzen da Aitor.

323. Euskal Herriko egoera azaltzen saiatzen da (GAS-020/047)

Asko bidaiatutakoa da Aitor, eta beti saiatzen da kanpoko jendeari Euskal Herriko egoera zein den azaltzen. Beste hizkuntzei dagokienez, bisitatzen ari den herrialde hartako hikuntzan oinarrizko hiztegia ikasten saiatzen da, begirunea adierazteko.

324. Australiako hizkuntza indigenak (GAS-020/049)

Australiara bidaiatu zuen Aitorrek eta txirrindan eman zituen hainbat egun. Pasarte honetan bertako hizkuntzei buruz ikasitakoa azaltzen du.

325. Zer da euskara zuretzat? (GAS-020/051)

Bizitzeko modua, lana, kultura, bere izaeraren zati bat da euskara Aitorrentzat. Ingalaterran gertatutako anekdota.

326. Umetan gazteleraz ikasi behar (GAS-021/002)

Umetan ez zuen euskaraz ikasteko aukerarik izan. Bere lehen maistra erdalduna izan zen. Harentzat ere gogorra izan zen haur euskaldunei gaztelera irakastea. Maria Jesusek ez dauka oroitzapen txarrik, euskaraz egiteagatik zigor gogorrik ere ez zuen ezagutu. Mojen ikastetxe batera joan zen.

327. Lan ibilbidea: ikastolatik euskaltegira (GAS-021/005)

Oinarrizko ikasketak amaituta, euskalgintzan murgildu zen. 70. hamarkadan isilpeko ikastolen mugimendua hasia zen. Ordezkapen bat egitera iritsi zen Gasteizko Ikasbidea ikastolara. Ikastoletan umeak zituzten gurasoak euskara ikasteko zerbait sortu nahian zebiltzala jakin zuen eta 'Udaberria' euskaltegiaren proiektuan sartu zen. Bere aurreneko zeregina euskara irakasten zebilen jendea batzea eta koordinatzea izan zen.

328. Ikasbidea ikastolaren hastapenak (GAS-021/007)

Ikasbidea ikastolan hasiera batean hiru gela besterik ez zeuden, irakasle banarekin. Oso giro berezia zegoen. Euskaraz ez zekiten guraso haietako asko gaur egun euskaldunak dira eta familia euskalduna dute.

329. Euskaltegiko irakasleak, ikastolako andereño ere baziren (GAS-021/009)

Olabide eta Ikasbidea ikastolen artean hasieran ez zegoen harremanik. Hala ere, euskaltegiko irakasle asko bi ikastola hauetako andereñoak ere baziren. Hasierako irakasle gehienek beste lanbide bat zuten euskaltegitik kanpo.

330. 'Euskerazaleak' proiektua (GAS-021/010)

Euskaltegia sortzen zerotik hasi ziren. Bilbon bazegoen 'Euskerazaleak' izeneko proiektu bat eta hasierako izena horixe hartu zuten. Hasierako helburua ikastoletarako materiala sortzea izan zen

331. 'Udaberria' euskaltegiaren sorrera (GAS-021/012)

Olabide ikastolako guraso batzuek helduei euskara irakasteko beharra zegoela pentsatzen zuten. Jose Carrera zen hauetako bat eta Maria Jesusi proposatu zion 'Udaberria' euskaltegia sortzea. Lehenengo gau-eskolak.

332. Euskaltegiko metodologia eta irratiko saioak (GAS-021/014)

Euskaltegian, alde batetik Andoni Urrestarazu 'Umandi'-k sortutako materiala erabiltzen zuten, eta bestetik Jon Oñatibiaren metodoa zegoen. 'Umandik' idatzitako elkarrizketak erabiliz, irratirako euskarazko saio batzuk grabatzen zituzten.

333. Izaskun Arruerekin harreman estua (GAS-021/016)

Olabide ikastolaren sorrera garaian ezagutu zuen Izaskun Arrue. Olabide utzi zuenean erizain lanak eta euskaltegia uztartu zituen Arruek.

334. 'Udaberria' euskaltegiaren hastapenak (GAS-021/018)

Hasiera batean gau-eskolak bakarrik ematen zituzten eta irakasleek kontraturik ere ez zuten. Pixkanaka profesionalizatzen hasi ziren eta 1984an homologazioa lortu zuten. Egun osoko eskolak ematen hasi ziren. Gaur egun 30 irakasle daude, asko urte askoko esperientziarekin.

335. Euskarako ikastaroak emateko tokiak (GAS-021/019)

Gaur egun 1100 ikasle inguru dituzte, hainbat zentrotan banatuta. Maria Jesus 'Udaberria'-n hasi zenean, liburu denda bateko gela txiki batean hasi zen. Ikastetxeetako geletan ere ematen zituzten klaseak.

336. Euskaltegiko ikasleen perfila I (GAS-021/020)

'Udaberria'-ko ikasleak batez ere helduak ziren. Ikastolara joaten ez ziren baina euskara ikastea nahi zuten haurrak ere bazituzten. Helduen artean, batzuk bere garaian euskararik jaso ez zutenak baina ikasteko gogoa zutenak ziren; beste batzuk, lanerako behar zuten. Talde txikiak izaten ziren.

337. Andoni Urrestarazu 'Umandi', euskara irakasle (GAS-021/022)

Andoni Urrestarazu ezagutzeko aukera izan zuen. 'Udaberria'-n irakaslea izan zen. Bere metodologia zeukan eta horren bidez irakasten zuen. Bere etxean ere eman izan zituen banakako klaseak. Gerora bere materiala motz geratu zitzaien.

338. Euskara batuaren eztabaida (GAS-021/024)

Euskaltegian ere izan zen euskara batuari buruzko eztabaida, baina ikasleen beharretara egokitu beharra zeukaten. Hori ere izan zen Urrestarazu anai-arrebek 'Udaberria' utzi izanaren arrazoietako bat. Izaskun Arruek ere Olabide ikastola neurri batean horregatik utzi zuen.

339. 'Udaberria'-ko irakasleak (GAS-021/027)

Berarekin batera 'Udaberria'-n irakasle ibilitako batzuen izenak aipatzen ditu. Irakasle gehienak kanpotik etorriak ziren, gasteiztarrik ez zen hasieran. Batzuek ez ziren izatez irakasleak, baina euskaldunak ziren eta erakusteko gogotsu zeuden.

340. Euskaltegiaren helburua (GAS-021/028)

Ikasleen perfila aldatzen joan da. Ume gutxiago dituzte orain. Heldu asko behartuta zihoazen euskaltegira, lanerako euskara jakin behar zutelako. Euskaltegiaren lana neurri batean jende hori "euskaldun bihurtzea" izan zen.

341. Euskararen egoera Gasteizera iritsi zenean (GAS-021/032)

Maria Jesus Gasteizera iritsi zenean euskararen presentziarik ez zegoen. "Ama" hitza erakustea ere zaila zen. 42 urteren ondoren egoera asko aldatu da.

342. Gasteizko euskararen egoera hobetzen eragile askok hartu dute parte (GAS-021/034)

Gasteizko euskararen egoera pixkanaka joan da hobetzen. Eragile askoren lana egon da: erakundeak, euskaltegiak, ikastolak... Denen lana izan da garrantzitsua.

343. Euskararen presentzia aisialdian (GAS-021/035)

Aisialdiko begiraleak prestatzen ere lan handia egin da. Gaur egun badaude aukerak aisialdiko ekintzak euskaraz egiteko.

344. Euskararen erronkak (GAS-021/036)

Maria Jesusen iritziz, erronka handiena euskara egunerokotasunean normaltasunez erabiltzean dago. Momentu hori iritsiko dela uste du.

345. Gasteizen euskaraz bizi daiteke? (GAS-021/037)

Gaur egun Gasteizen euskaraz bizi daitekeela uste du. Saiatzen da lehen hitza euskaraz egiten. Ez du euskararen aurkako jarrera gogorrik topatu.

346. Herri hizkeren aberastasuna (GAS-021/039)

Gasteizen euskalkien nahasketa badago. Maria Jesusek beti gomendatu izan die bere ikasleei Gasteiztik irten eta herri euskaldunetara joateko, euskalki ezberdinak ezagutu ditzaten.

347. Zer da euskara Maria Jesusentzat? (GAS-021/041)

Maria Jesusentzat euskara "dena da". Ez da hizkuntza bakarrik; ohiturak, kultura... da.

348. Euskal kulturaren egoera gaur egun (GAS-021/043)

Gaur egun askoz aukera gehiago dago euskaraz kultura aldetik: aldizkari, telebista, zinema...

349. Erretiratu ondorengo ikuspegia (GAS-021/046)

Erretiratuta dagoen arren, euskaltegiarekin harremanetan jarraitzen du. Orain gauzak beste aldetik ikusten ditu eta poza ematen dio egin den lana ikusteak.

350. Umetatik ikastolara; euskararekin izan duen harremana (GAS-022/002)

Gasteizen jaioa. Gurasoak gasteiztarrak ziren, aitona-amonak lautadakoak eta Arabako errioxakoak. Sei anai-arrebetan zaharrena da. Familian ez zegoen euskaldunik. Izaskun Arrueren ikastola klandestinoan hasi zen ikasten eta Olabide ikastolan ondoren. 10 urterekin institutura joan zen eta euskara dezente galdu zuen. 20 urterekin berreskuratu zuen.

351. Seme-alabei hasieratik euskaraz (GAS-022/003)

16 urterekin txistu-eskolak ematen hasi zen Olabiden. Euskal irrati-telebista sortu zen. Alaba jaio zenean, harekin euskaraz egitea erabaki zuen. Senideen artean erdaraz egiten jarraitzen dute.

352. Izaskun Arrue, bigarren ama bat bezala (GAS-022/004)

Izaskun Arrue andereñoa izan zuen irakasle 7 urtean. Bigarren ama bat bezala zen berarentzat. Erreferentzia bat. Oso kuttuna eta alaia zela dio, baina zorrotza ere bai.

353. Ikastolako metodologia (GAS-022/005)

Ikastolako metologia, Elbira Zipitriarena. Martin Txilibitu eta Xabiertxo liburuak erabiltzen zituzten. Koaderno urdin batean galdera mordoa zituen Izaskun Arruek. Klasea hasteko, otoitza eta bukatzeko abestiak. Petroliozko berogailuaren usainarekin gogoratzen da.

354. Ikastola klandestinoa lagundu zuten ikastetxeak (GAS-022/007)

Ikastola klandestinora bidaltzeko erabakia. 1967-68 ikasturtean eskolaratzea derrigorrezko bihurtu zuten. Gasteizko ikastetxe batzuekin tratua egin zuten, "eskolaratze txartelak" lortzeko. Olabide ikastolarekin harremana izan du gerora ere, modu askotara.

355. 1963a baino lehen egon ziren euskarazko eskolak (GAS-022/009)

Amaren familia abertzalea zen, aitarena ez hainbeste. Gerraurreko "ikastola", Batzokian. Joseba Perez hango ikaslea izan zen. Peli Martin eta 'Umandi' ere ibili ziren euskarazko eskolak ematen.

356. Olabide ikastolaren sorrera (GAS-022/010)

1967an sortu zen Olabide ikastola, legeztatu zenean. Olabide apaiz euskaltzale bat zen, gasteiztarra.

357. Umetako giroa Gasteizen (GAS-022/011)

60ko hamarkadan giro erdalduna zegoen Gasteizen. Euskaraz Gipuzkoatik bertara joandakoek bakarrik egiten zuten. 9 urterekin dantza-talde batean hasi ziren, Manuel Iradier elkartean, eta han ikastolan zebiltzanak ziren euskaldun bakarrak.

358. Ikasketak gaztelaniaz, baina ikaskide euskaldunekin (GAS-022/012)

Institutuan eta fakultatean gaztelaniaz ikasi zuen. Ikasle gipuzkoar asko zegoen, eta unibertsitatean bazuen euskaraz egiteko aukera. Pixkanaka-pixkanaka sortu ziren euskaraz jarduteko eremuak Gasteizen. Medikuntza eta Musika ikasketak egin zituen.

359. 80ko hamarkadan, aukera gehiago euskaraz jarduteko (GAS-022/014)

80. hamarkadan aukera gehiago zegoen euskaraz jarduteko, baita musika munduan ere. Alabaren jaiotza mugarria izan zen. Lehenengo hitza euskaraz egiteko ohiturarik ez dago Gasteizen. Okindegi batean lehenengo hitza euskaraz egiten dute. Berari erosoagoa zaio gaztelaniaz egitea, baina onartzen du aukera asko galtzen direla lehen hitza euskaraz ez egiteagatik.

360. Olabide ikastolaren ibilbidea (GAS-022/016)

Seme-alabak Olabide ikastolan ibili dira, eta ikastolan ardura postuetan egotea egokitu zaio. 2.000 ikasle izatera iritsi zen Olabide. Gela xume batekin hasi eta 4-5 eraikin izatera igaro da. Txistu-eskolak eman zituen Olabiden.

361. Olabide ikastolako lehenengo andereñoak (GAS-022/017)

Olabide ikastolako andereño batzuk aipatzen ditu.

362. Euskal folklore eskolako koordinatzaile (GAS-022/019)

Txistu ikasketak 26 urterekin bukatu zituen, eta txistulari-lanpostua lortu zuen udaletxean. Kultura Sailean euskal folklore eskola ipini zuten abian, eta koordinatzaile moduan hasi zen. Gaur egun 800 ikasle baino gehiago daude eskolan, eta euskara da harreman-hizkuntza nagusia. Politikan ere ibili da, zinegotzi moduan.

363. Gaur egun, %30-35 euskaldunak Gasteizen (GAS-022/021)

Gaur egun Gasteizen %30-35 inguru dira euskaldunak, baina ulertu dezaketenak gehiago dira. Bere emaztea ez da euskalduna baina dena ulertzen du. Derrigortzearen kontra dago.

364. Politikan nola hasi zen (GAS-022/022)

Politikan nola hasi zen kontatzen du. Udal haustekunde batzuetan EAJko zerrendetan egotea proposatu zioten. Lau urte egin zituen, eta gero berriro bueltatu da, 10 urteren buruan.

365. Politikagintzan euskararen erabilera igo egin da (GAS-022/023)

Politikagintzan ere aldaketak ikusi ditu euskarari dagokionez. Aldi bereko itzulpenik ez zegoen eta bilera guztiak gaztelaniaz ziren garai batean. Orain %30 dira euskaraz gaur egun.

366. Gasteizko ikastolak eta ikastetxeak (GAS-022/026)

Olabidez aparte, euskaraz irakasten duten ikastola eta ikastetxe asko daude gaur egun Gasteizen. Gurasoen lana nabarmentzen du.

367. Manuel Iradier elkartea eta Araba abesbatza (GAS-022/028)

Gasteiz euskalduntzen lagundu duten elkarteak aipatzen ditu: Manuel Iradier elkartea eta Araba abesbatza (1968). Abesbatza horretako partaideak: Peli Martin, Sabin Salaberri, Iñaki Lasa... Euskal dantza-taldeak eta mendizale elkarteak.

368. Ikurriña legezkoa ez zen sasoiko kontuak (GAS-022/029)

Ikurriña 1977an legeztatu zuten, bere urtebetetze-egunean. Mendian ikurriñak ateratzen zituzten. Mairulegorretako dantzaldietan ere bai. Aitarekin joaten ziren, eta ama kezkatuta egoten zen.

369. Langile grebek eta mugimendua Gasteizen (GAS-022/030)

Langile grebak. 1976ko martxoaren 3ko sarraskia gertatu zenean 15 urte zituen. 1952an ere izan ziren grebak, eta aitona kartzelara eraman zuten. Gasteizko izaera markatu zuen martxoaren 3ko grebak eta langile mugimenduak. Aurretik, apaizak eta militarrak zeuden Gasteizen. Industrializazioak eta langileek eraldatu zuten hiria.

370. Martxoaren 3ko sarraskia (GAS-022/031)

1976ko martxoaren 3ko sarraskia gertatu zenean, non zegoen kontatzen du.

371. Euskara batuak sortutako eztabaida (GAS-022/034)

Euskara batuaren sorrerak ekarritako ezadostasunak, Olabide ikastolan. Izaskun Arrue ez zen batuaren aldekoa, eta ikastola utzi zuen.

372. Eusebio Osa eta euskara batua (GAS-022/036)

H-zaleak. Eusebio Osa aipatzen du. Eskolan otoitz ez egitea, adibidez, orduan sartu zen.

373. Gasteiztarra eta euskalduna? (GAS-022/038)

Askotan esan diote ezin duela gasteiztarra izan, euskaraz dakielako. Alabari ere esan izan diote.

374. Euskaraz hitz egiteko lotsa galtzea inportantea (GAS-022/040)

Garai batean euskaraz hitz egiteko lotsa zeukan. Orain ez. Politikagintzak ere lagundu dio horretan.

375. Merkatu egunetan, Mendia optikan euskara entzuten zen (GAS-023/005)

Keparen gurasoak gasteiztarrak dira. Amaren familia arabarra zen eta ez zuten inoiz euskaraz egin, baina aitaren ama tolosarra zen eta haiek egiten zuten. Keparen aitak gustuko zuen merkatu egunetan optikara etortzen ziren bezero euskaldunekin euskaraz aritzea.

376. Mendia optikaren historia (GAS-023/006)

1856an zabaldutakoa da Mendia optika, hasiera batean Trebiñuko Argantzunen ireki zuen lehenengo denda Keparen birraitonaren aitak. XVIII. mendearen amaieran haren semea Gasteizera etorri eta gaur egungo denda zabaldu zuen, Andre Maria Zuriaren plazan.

377. Mendia optika eta euskara (GAS-023/009)

Keparen aitonak optika hartu zuenean, amona egoten zen bertan lanean. Merkatu egunetan euskaldun batzuk sartu ohi ziren dendara eta amonak euskaraz jarduten zuen haiekin. Keparen aitak ez zuen euskara ikasi baina zerbait ulertzen zuen eta gustatzen zitzaion. Gainera musikarako zaletasuna zuen eta euskal kanten diskoak saltzen zituzten optikan.

378. Euskararekin lehen harremana oso apala (GAS-023/013)

Euskararekin lehen harremana umetan izan zuen Kepak, etxean: euskarazko kantak abesten zituzten edo aitak amonari ikasitako esaldi solteren batzuk errepikatzen zituen.

379. Mutikotan, euskararen presentzia urria (GAS-023/014)

Mutikoa zela, kalean ez zen euskararik entzuten Gasteizen. Baina beste leku askotan ere ez. Batxilergoa Lekarozen egin zuen, Nafarroan, eta ez du gogoan han euskara entzun izana. Taberna batean bazen gazteleraz gaizki egiten zien gizon bat; hura euskalduna izango zen seguru asko.

380. Euskarazko iragarkiak irratian (GAS-023/016)

Keparen aitak Gasteiz Irratian 'Euskal Jaia' izeneko programa bat egin zuen, oso arrakastatsua, Jose Mari Sedanorekin. Euskal musika ipintzen zuten eta Kepak itzulitako euskarazko iragarkiak tartekatzen zituzten.

381. Madrildik ekarritako altxorra: euskara (GAS-023/017)

Madrilera joan zen Optika ikastera, 1969an. Hantxe hasi zen euskarara hurbiltzen. Ekonomia ikasketak egiten hasi zen eta ikasle euskaldunekin topo egin zuen. Ikastetxean bertan euskara ikasten hastea erabaki zuten. Lehen irakaslea Ganix Larratxe nafarra izan zen. Txillardegiren liburuetatik ere asko ikasi zuen. Gaur egun bere emaztea dena, Maite, ezagutu zuenean, Baionakoa zenez, bien artean euskaraz egitea beste aukerarik ez zitzaien gelditu ia.

382. Madrildik itzuli zenean, euskararen egoera guztiz aldatua (GAS-023/019)

1976an Madriletik itzuli zenean, euskara bazekien eta euskal giroan murgildu zen. Egoera politikoa guztiz aldatuta zegoen; Olabide ikastola sortua zen, adibidez. Euskara ikasteko aukera asko zeuden. 1977an AEK sortu zen, Euskaltzaindiaren babesean.

383. Euskara irakasle (GAS-023/021)

Olabide ikastolaren egoitzan helduentzako euskara ikastaroak ematen ziren. Kepa irakasle gisa hasi zen 1976an. Hasierako urteetan AEK-k 2.000 ikasle inguru biltzen zituen. Eusebio Osa apaizgaia izan zen irakasleetako bat. AEK-k euskara irakasten zebiltzan talde ezberdinak batu zituen. 1978an Euskal Filologia ikasten hasi zen Kepa.

384. Koldo Mitxelenaren ikasle (GAS-023/022)

Euskal Filologiako lehen belaunaldikoa izatea suertatu zitzaion, 1978an. Koldo Mitxelenari esker sortu zen fakultatea Gasteizen. Mitxelenak bi ikasle bakarrik izan zituen urte hartan, Kepa eta beste neska bat. Nolakoa zen kontatzen du. Anekdota bat.

385. Euskal Filologiako fakultatean, irakasle eta ikaskide izandakoak (GAS-023/025)

Euskal Filologiako ikasleen artean aniztasun handia zegoen. Koldo Mitxelenaren inguruan biltzen ziren irakasleak. Hasierako klaseak seminarioan ematen ziren. Izan zituen irakasle eta ikaskide batzuk aipatzen ditu.

386. Euskalzaletasuna lantokira eraman zuen (GAS-023/026)

Kepak ez zuen bere burua optikan bakarrik ikusten. Euskaltzalea zenez eta Gasteizen bertan Euskal Filologia ikasteko aukera sortu zenez, bide hori hartzea erabaki zuen. Baina pixkanaka optikara bideratuz joan da. Orduan euskara bere lantokira eramatea erabaki zuen; kartelak euskaraz ipiniz, komunikabideetako publizitatea euskaraz eginez, lankide euskaldunak aukeratuz etab.

387. Euskararen hautua, negozioarentzat onura (GAS-023/029)

Optikan euskara erabiltzen hasi zenean, kalterako izango zela esaten zioten zenbait lagunek, baina alderantziz izan da. Bereizgarria izan da.

388. Erosle euskaldunek euskaraz erosi nahi dute (GAS-023/030)

Denda gehienak ez dira konturatu, oraindik ere, euskara badela Gasteizen eta hor merkatu bat dagoela. Beste batzuk "badaezpada" ipintzen dute baina itxura hutsean geratzen dira. Gutxi batzuk konturatu dira erosle euskaldunek euskaraz erosi nahi dutela.

389. Jatetxe askotan, menua ez dago euskaraz (GAS-023/031)

Jatetxe askotan karta ez dago euskaraz, ezta beste hiri batzuetan ere, Donostian adibidez. Kepa ez da sartzen leku horietan. Hala ere, poliki-poliki egoera aldatzen ari da.

390. 'Obabakoak', bista neurtzeko (GAS-023/033)

Bista begiratzeko euskarazko testuak ipintzen ditu eta jendeak eskertzen du. Bernardo Otxaga harritu egin zen optikan 'Obabakoak'-en zati bat ikusi zuenean.

391. Gasteizko euskal mugimenduaren aurrekariak (GAS-023/035)

Gasteizko euskararen historia ikertu du Kepak. Izaskun Arrue, Andoni Urrestarazu 'Umandi', Peli Presa... izan ziren euren aurrekariak.

392. Gasteizko euskararen egoera (GAS-023/041)

Euskararen ezagutza eta erabileraren artean desberdintasun handia dago; aurrerapen handia egon da urte batzuetan baina orain motelaldia dagoela dirudi. Korrika edo Euskaraldia bezalako ekimenak beharrezkoak dira. Erakundeen aldetik ere kontraesanak ikusten ditu; euskara bigarren mailako hizkuntza moduan tratatzen da.

393. Euskara eta aisialdia (GAS-023/042)

Euskararen aldeko jarrera positiboa badago, baina ez da nahikoa. Quebec-etik hitzaldi bat ematera behin etorritako hezkuntza ministro baten gogoeta. Gaztetxoek euskara eskolako hizkuntza bezala ikusten dute. Orain hasi gara konturatzen aisialdia ze garrantzitsua den. Adibide batzuk aipatzen ditu: kirola eta zinema.

394. Euskara batuaren sorreraren garrantzia (GAS-023/043)

Euskara batuaren eztabaida ez zuen berak ezagutu. Keparen ustez Euskal Herrian egin den ekintzarik garrantzitsuena euskara batuaren sorrera izan da. Elkar ulertzeko ezinbestekoa da.

395. Gasteizen euskara bultzatzeko mugimenduak (GAS-023/044)

Keparentzat ekimen politenak Korrika eta Euskaraldia izan dira, batez ere bigarren hau, erabilpenaren aldarria egin duelako eta erakunde eta elkarte guztiak bat eginda aritu direlako. Oihaneder Euskararen Etxea, Mintzalaguna, Kontseilua, Alea aldizkaria, Hala Bedi irratia... aipatzen ditu.

396. Euskara ez dago lehen bezain indartsu (GAS-023/048)

Gasteizko euskararen egoera asko aldatu da, baina beste herrietan ere bai. Egoera parekatzen ari dela iruditzen zaio; badirudi hiri handietan euskarak irabazi egin duela baina txikietan, aldiz, galdu egin du.

397. Gasteizen euskaraz bizi daiteke? (GAS-023/049)

Gasteizen euskaraz bizi daiteke baina ahalegina egin behar duzu, aukerak egin behar dituzu. Ez dago euskararekiko ageriko kontrako jarrerarik, baina egoera batzuetan jendeak gaizki erreakzionatzen du. Lehenengo hitza euskaraz egitea oso garrantzitsua da.

398. Zer da euskara Keparentzat? (GAS-023/051)

Euskal Herriaren bihotza, arima, da euskara. Eta euskal herritarrak lotzeko oinarrizko osagaia. Txillardegiren hitzak aipatzen ditu.

399. Euskarari dagokionez, "pleno" egin du bere familian (GAS-023/052)

Mendia Optikan ez du lortu familiako ondorengorik, "espeziearen azkena" da. Baina euskarari dagokionez oso harro dago hiru alabak eta biloba guztiak euskaldunak direlako.

400. Euskara txikitatik etxean jaso du (GAS-024/002)

Iratiren aita euskaltzale amorratua da eta seme-alabei transmititu die txikitatik. Iratiren ama Kantabriakoa da eta haurdun gelditu orduko euskara ikasten hasi zen. Beraz ama-hizkuntza euskara izan dute Iratik eta bere anaiak.

401. Euskarazko aditzak jolastuz ikasten (GAS-024/004)

Txikitan aitarekin aditzak asmatzera jolasten zuten, aditz-taulen gurpil moduko batekin. Aitari betidanik gustatu izan zaio euskararen mundua.

402. Ikastetxez aldatzean, euskararekiko sentimendu desberdina topatu zuen (GAS-024/005)

Gasteizko Toki Eder ikastolan ikasi zuen. Bertan 'Euskaraz bizi' proiektua jarri zuten martxan eta euskal giro horretan egin zituen Iratik ikasketak. Batxilergoa egitera Ikasbidea ikastolara pasa zenean, baina, izugarrizko aldaketa nabaritu zuen. Hango ikasleek euskara zerbait derrigorrezkoa bezala

sentitzen zuten, ez zuten maitatzen. Iratiren euskararekiko harremana ere aldatu egin zen eta elebidunagoa izaten hasi zen.

403. Toki Eder ikastolan dena euskaraz; unibertsitatean, aldiz, mugatuta (GAS-024/006)

Toki Eder ikastolan eguneroko hizkuntza euskara zen, bai eskolan, jolastokian, aisialdian... Eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen zuten gurasoek euskara ikasteko ere egiten zuten. Unibertsitatean euskaraz ikastea erabaki bazuen ere, material egokirik ez zuen aurkitzen eta askotan beste hizkuntzetan irakurtzera jotzen zuen.

404. Ikastetxean euskaraz bizitzen ahalegintzeaz nekatu (GAS-024/008)

Toki Ederretik Ikasbideara pasatu ziren beste ikaskide batzuekin euskaraz egitetik gazteleraz egitera pasa zen. Frustrazio handiz bizi izan zuen berak euskaraz egitea eta ikaskideek gazteleraz erantzutea, eta baita irakasleen euskara maila eskasa ere. Azken urteetan "amore eman" zuen eta berak ere gehiago egiten zuen gazteleraz.

405. Unibertsitatean euskalki desberdinak entzuteko aukera (GAS-024/009)

Unibertsitatean beste probintzietatik joandako jendea zegoen eta klaseko giroa nahiko euskalduna bazen ere, euskarazko material egokia aurkitzea zaila zen eta askotan itzulpenak egin behar izaten zituzten. Beste euskalkietako ikaskideei ulertzeko batzuetan komeriak izaten zituzten.

406. Bertsolaritzara nola gerturatu zen (GAS-024/010)

Aita "Hitzetik hortzera" bertsolaritzari buruzko programaren zale amorratua zen baina Iratiri hasiera batean aspergarria iruditzen zitzaion. 13 urte inguru zituela bertso eskolan izena eman zuen eta euskararekin jolastea dibertigarria iruditu zitzaion. Iratiren iritziz, bertsolaritzak Araban asko lagundu du jendea euskalduntzen.

407. Bertsolaritza Araban (GAS-024/013)

Araban bertsolaritzara hurbiltzen den edonor azkenean ez da bertsolari hutsa; familia txikia izanda, bertsoaren inguruan antolatzen den edozertan hartzen dute parte.

408. Jon Maia eta Igor Elortza bertso eskolako irakasle (GAS-024/014)

Bertso eskolan Jon Maia eta Igor Elortza izan zituen irakasle, garai batean Gasteizen ikasten ari baitziren. Aberasgarria izan zan haiengandik ikastea.

409. Kirolerako zaletasuna betidanik izan du (GAS-024/016)

Txikitatik izan du kirolerako zaletasuna eta abilezia. Mendi taldean eskalatzera eraman zituzten eta ondo ematen zitzaion. Pixkanaka eskaladara bideratu zuen bere bizitza.

410. Zergatik eskalada? (GAS-024/017)

Eskalada kirol oso osatua da, gorputz osoa erabiltzen da. Adierazteko modu bat ere bada. Frustrazioak gainditzen ere laguntzen dion tresna bat da. Naturarekin kontaktuan egotean ere disfrutatu egiten du.

411. Eskalatzaile profesionala bilakatzea (GAS-024/019)

10-11 urterekin hasi zen eskalatzen, Egino herrian (Araban). Garai hartan oraindik ez zegoen rokodromorik Gasteizen eta asteburutan bakarrik eskalatzen zuten. Geroago sortu zen Ariznabarrako rokodromoa eta orduan egunero eskalatzeko aukera izaten zuten. 14-15 urterekin piztu zitzaion profesionalki eskaladara bideratzeko grina. Egunero entrenatzen hasi zen eta pixkanaka txapelketak eta emaitzak heldu ziren.

412. Mundu errealeko "idoloak" (GAS-024/020)

Ez da oso idolo zalea. Eguneroko bizitzan topatzen duen jende arruntari erreparatzen dio gehienbat. Eskalatzaile batzuen estiloa gustatzen zitzaion, baina ez du uste idolatratzea sanoa denik. Bere ustez mundu hori ez da erreala eta frustrazioak sortzen ditu. Argi izan behar da norberak zer nahi duen eta hori lortzeko lan gogorra egin behar dela. Patxi Usobiaga aipatzen du.

413. Eskalada, garapen pertsonalerako tresna (GAS-024/022)

Eskaladan bere bidea nahiko bakarka egin du. Garapen pertsonalean lagundu izan dion tresna izan da.

414. Bizipenak garaipenen gainetik (GAS-024/023)

Emaitza onak lortu izan ditu baina batzuetan ez da emaitzarik lortzen eta horrek ez du esan nahi lana gaizki egin denik. Bizipenak garaipenak baino garrantzitsuagoak dira Iratirentzat.

415. Bizipen zirraragarriak (GAS-024/024)

Pare bat bizipen gogoangarri aipatzen ditu: 2007an Munduko Kopako txapelketako finalean sartzea lortu zuen lehen aldiz Zurichen. Beste behin finalera lehen postuan pasa zen froga bat ere gogoan du. Beti kostatu izan zaio horra iritsi zitekeela sinestea.

416. Genero berdintasuna eskaladan (GAS-024/026)

Iratik eskalada munduan ez du gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunik bizi izan. Kiroletan gero eta emakume gehiago ari da parte hartzen. Lehen eskaladan indar fisikoa hartzen zen gehienbat kontuan, gaur egun beste alderdi batzuk ere garrantzia dute: teknika, erresistentzia, malgutasuna...

417. Euskal kirolariak atzerrian (GAS-024/027)

Espainiako Selekzioan hizkuntza amankomuna gaztelera izan da. Baina atzerrian euskararen existentzia ezagutzen da eta euskaldun bezala hartu izan dituzte.

418. Euskararen presentzia Gasteizko kirolean (GAS-024/028)

Gasteizen askotan kirol jardueretan euskararen erabilera begiralearen araberakoa izaten da. Iratiren ustez, euskararen erabilera naturalizatu egin behar da, eta ez behartu. Gasteiz eta Arabako errealitatea askoz elebidunagoa dela onartu behar da. Entrenatzaile gisa animatzen eta ez behartzen saiatzen da.

419. Gasteizko euskararen egoera (GAS-024/030)

Garai batean Gasteizen euskararik ez zen entzuten. Kalean entzutea arraroa zen. Gaur egun oso normala da edonon entzutea.

420. Gasteizen bizi daiteke euskaraz? (GAS-024/031)

Gaur egun ez dago arazorik Gasteizen euskaraz bizitzeko. Leku gehienetan elebidunak dira.

421. Gasteizen euskara bultzatzeko mugimenduak (GAS-024/035)

Gasteizen euskara bultzatzen lagundu duten mugimenduak: bertsolaritza, GEU elkartea, 'Gasteiz Kantuz' elkartea, 'Alea' aldizkaria, ikastolako gurasoak... Hala ere, norberaren konpromisoan dago gakoa. Mintzalaguna.

422. Gasteizko euskararen ezaugarriak (GAS-024/036)

Gasteizko euskara oso nahasia dela uste du Iratik, gaztelera edo ingeleseko hitzak sartzen ditu berak, adibidez. Ez du horregatik konplexurik, ezta euskalkirik ez izatearena ere.

423. Gasteiztarra eta euskalduna? (GAS-024/037)

Askotan esan diote: "gasteiztarra eta euskalduna?". Iratiren ustez hori aspaldiko irudi bat da, gaur egun asko aldatu da dena.

424. Euskalkiak ulertzeko komeriak (GAS-024/038)

Bertso saio batean, gipuzkoar eta bizkaitarrekin elkar ulertzeko nahikoa komeria izan zituen. Gainera, kantatu ostean, norbaitek "arabarra izateko hain gaizki ez zuela egin" esan zion.

425. Arabako bertsolaritzan emakumeen presentzia handia (GAS-024/039)

Araban gehiengoa emakumeak izan dira bertso eskolan. Bertso saioetan presentzia handia izan dute beti.

426. Zer da euskara Iratirentzat? (GAS-024/041)

Modu desberdinean komunikatzen da euskaraz ala gazteleraz ari denean. Euskaraz egiten duenean bere nortasunaren parte bat dela sentitzen du, ez da hizkuntza hutsa.

427. Hitz egin ez arren, euskara maite duen jende asko dago (GAS-024/042)

Badago jendea eskolan euskaraz ikasi baina gero erabili ez eta galdu duena. Badago, baita ere, euskara maite arren hitz egiten ez duen jendea. Araban lan asko egin da erdaratik euskararen alde.

428. Euskal Telebistako 'El conquistador...' programan egoera bitxia (GAS-024/044)

Euskal Telebistako langileekin harremana euskaraz izaten zen. 'El conquistador del fin del mundo' programan egoera bitxia sortzen zen; programa gazteleraz zen baina parte-hartzaile gehienak euskaldunak zirenez, kamera atzean beraien artean euskaraz egiten zuten. Grabatu behar zutenean, ordea, hizkuntza aldatu behar izaten zuten.

429. Gurasoen euskalduntzea (GAS-025/002)

Ama gasteiztarra du eta aita bizkaitarra. Biak erdaldunak ziren elkar ezagutu zutenean baina euskararekiko kontzientzia oso argia zuten eta euskalduntze prozesua abiatu zuten. Garaiko mugimenduetan parte hartu zuten eta euskaltegian ikasi zuten euskara. Seme-alabak jaio zirenean oso argi izan zuten hauekin euskaraz komunikatu nahi zutela. Hasiera batean euskarazko kantak abesten zizkieten Oihaneri. Umetan zaintzen zituen emakumeak, Lupek, transmititu zien batez ere euskara. Ia aldi berean ikasi zuten Oihanek eta bere gurasoek.

430. Ikasle garaia, euskararen aldeko etengabeko borroka (GAS-025/004)

Toki Eder ikastolan ibili zen umetan eta geroago Arantzabela ikastolan. Bigarren Hezkuntza Koldo Mitxelenan egin zuen, euskaraz zegoen institutu bakarra. Unibertsitatean Magisteritza ikasi zuen eta Lehen Hezkuntza euskaraz egin zuen lehen belaunaldia izan zen. Ibilbide guztia euskararen aldeko etengabeko borroka bat izan zen.

431. Arabako ikastola publikoen fenomenoa (GAS-025/005)

Araban, gurasoek bultzatuta, ikastola publikoak sortu zituen Aldundiak.

432. Euskararen aldeko hautua (GAS-025/009)

Ikastolatik kanpo, lagun artean gazteleraz egiten zuten. Baina heldutasuna eta kontzientzia hartzen joan ziren heinean, euskararen aldeko hautua egin zuten. "Euskañola" izan da gehien erabili duten hizkuntza.

433. Bertsolaritzan nola hasi zen (GAS-025/010)

Gaztetxotan hasi zen bertso-eskolan, 11-12 urterekin. Serapio Lopez bertsolaria bere irakaslea izan zen Arantzabela ikastolan, eta haren ustez idazten trebea zen Oihane, baina alperra. Hark konbentzitu zuen bertso-eskolan probatzeko. Hala ere, bere adineko haurrik ez zen orduan eskolan. 16 urte ingururekin hasi zen irakasle gisa eta jende gaztea bertso-eskolara erakartzen. Geroago Arabako beste herrietan ere bertso-eskolak bultzatzen ahalegindu ziren.

434. Gasteizko bertso-eskolan unibertsitateko ikasle asko (GAS-025/012)

Gasteizko bertso-eskolan kanpoko jende asko ibili da, batez ere unibertsitatearen eraginez.

435. Bertso-eskolak, euskalduntze prozesuan ezinbestekoak (GAS-025/013)

Oihaneren ustez, bertsolaritzak euskararen ahozko erabilpenerako baliabideak ematen ditu eta hor dago bertso-eskolen arrakastaren gakoa. Lagunarte euskaldun bat ere ematen du; jende askok ideologia eta hizkuntza aldetik "bere familia" topatu du bertso-eskoletan.

436. Eskolarteko bertsolari txapelketak (GAS-025/014)

Eskolarteko bertsolari txapelketetan parte hartzen hasteak irekiera bat suposatu zuen: beste euskaldunak eta euskalkiak ezagutu eta aldi berean arabarrak existitzen zirela erakustea. Motibazioa handi bat izan zen.

437. San Prudentzio sariketa (GAS-025/015)

San Prudentzio sariketan lehen aldiz 16 urterekin hartu zuen parte eta 26 urtez lehiatu da txapelketan. Txapelketa aldatuz eta garrantzia hartuz joan da.

438. Beraien garaian bertsolaritzarekiko konpromisoa handiagoa zen (GAS-025/016)

80. hamarkadan hazkunde handia egon zen bertso- eskolan. Orain berriz ari da pizten. Gizartea aldatu egin da eta gaur egun, nahiz eta jendea sortzaileagoa den, bertsoarekiko konpromisoa ez da hainbestekoa. Hala ere, Oihaneren iritziz, bertsoaren zentralitatea bermatzen duen belaunaldi bat dator orain.

439. Lau aldiz Arabako txapeldun (GAS-025/018)

Lau aldiz izan da Arabako txapelduna. Gaztetxotan gogo izugarria zuen txapelduna izateko eta horren bila zihoan. Baina geroago erlaxatu egin zen, lehentasunak aldatu zituen eta orduan etorri zen txapela, hainbat urtetan txapeldunorde izan eta gero. Bertsoa epaitzerako orduan subjektibitate handiak daude. Artea "puntuagarria" izatearekiko zalantzak dauzka. Hala ere, txapelketak erakusleiho onak dira, nahiz eta txapelak pisu bat ere sortzen duen.

440. Emakume bertsolariak Araban (GAS-025/019)

Genero ikuspuntutik, Arabako bertsolaritzaren historia desberdina izan da, ez baitzuten aurrekaririk. Beraiek abiatu zirenean zegoen mugimendua oso ezkertiarra eta feminista ere bazen. Gurasoek asko motibatu dute bertsolaritzan jarraitzera, hain zuzen ere emakumea izateagatik. Oihaneren lehen bertso- eskolan denak emakumeak ziren. Baina beste leku batzuetan gizarte kontserbadore eta matxista batetik emakumeek bertsolaritza berri bat sortu behar izan dute eta bidea zailagoa izan da.

441. Arabako bertsolariak, "oso taldekoak" (GAS-025/020)

Adin batetik aurrera, badirudi emakume bertsolariak desagertu egiten direla plazetatik. Ama izan ondoren plazan jarraitzen lehena izan zen Oihane. Arabako bertsolariak "oso taldekoak" direla uste du; taldearen babesak laguntzen die bertsoekin nekatzen hasten direnei.

442. Arabako Bertsozale Elkarteko eragile (GAS-025/021)

Arabako Bertsozale Elkarteko eragile da Oihane. Pixka bat denetik egiten du, baina batez ere bertsolaritza klaseak ematea gustatzen zaio. Gaur egun Arabako lautadako mendialdean eta Arabako Errioxan ibiltzen da. Talde txikiak eta aniztasun handikoak dira. Bertso-eskoletan ere ibiltzen da eta baita ikastetxeak edo aisialdiko ekintzak koordinatzen ere.

443. Bertsolaritzari esker, euskara dibertsioarekin lotzen dute Arabako haurrek (GAS-025/022)

Gaur egun bertsolaritza klaseak ematen ditu Arabako lautadako mendialdean eta Arabako Errioxan. Haur horientzat zaila da aisialdia, oso sakabanatuta bizi direlako. Batxilergoa ikastera ere kanpora joan ohi dira. Baina bertsolaritzari esker, euskara dibertsioarekin lotzen dute.

444. Bertsolaritza euskara ikasteko prozesuan (GAS-025/024)

Euskara ikasteko prozesuan helduak ere gerturatzen dira bertso-eskolara. Ironia edo bigarren zentzua ulertzea, hizkuntza bat guztiz menperatzera iristea dela iruditzen zaio. Euskaltegian ikasi duen jende asko bertsoa ulertzera iristen denean sentitzen da "benetan euskaldun". Gasteizko bertso-eskolatik pasatako jende asko dabil euskararen inguruan lanean.

445. Euskararen egoeraren bilakaera Gasteizen (GAS-025/025)

Bera umea zela, Gasteizen ez zekien inork euskaraz, kanpotik lanera etorritako jendeak izan ezik. Hizkuntz eredu ezberdinen legeak ez du mesederik egin. Herri txikietan ia ez dago A ereduko ikastetxerik eta onuragarria izan da bai hizkuntzarentzat, bai gizarte harremanentzat ere. Baina Gasteizen A eredua mantendu da eta Oihaneren ustez integraziorako erabaki okerra izan da.

446. Gasteizen euskaraz bizi daiteke? (GAS-025/026)

Gaur egun euskaraz bizitzeko modua aurkitu dezakezu Gasteizen. Oihane ez da orain bertan bizi, baina duela 20 urte euskaraz bizi zitekeen %80an. Guraso elkarteetan lehenengo aldiz jende euskalduna dago; parkeetan euskara entzuten da... Aiton-amona euskaldun-berriak daude, Oihaneren gurasoak adibidez. Aurreiritziak direla eta ezustekoak hartu izan ditu.

447. Gasteiztarra eta euskalduna? (GAS-025/027)

Kanpora joan izan denean, aurreiritziak eta gutxiesteak bizi behar izan ditu. Arabarrek konplexua ere izan dutela uste du, bigarren mailako euskaldunak direla sentituz. Goierriko Osinalde bertso sariketan lehen aldiz parte hartu zuen arabarra izan zen Oihane eta han gertatutako anekdota kontatzen du. Arabako bertsolarien erabaki kontzientea izan da beraien burua beste herrialdeekin ez konparatzea.

448. Euskara Gasteizko aisialdian (GAS-025/028)

Oihaneren ustez, desoreka dago hezkuntzari esker euskaldundu den jende multzoa eta aisialdiko eskaintzaren artean. Askotan elebitasunaren errua da. Erabaki sendorik ez dela hartu uste du eta ez dela euskalduntze prozesuan aisialdiaren garrantzia ikusi. Euskarazko sorkuntzak izan beharko luke Gasteizko aisialdiko eskaintzaren "harribitxia".

449. Euskararen aldeko mugimenduak Gasteizen (GAS-025/029)

Bere auzoan, Aranbizkarran, Amaia Zentroa bultzatu zuten. Han antolatzen diren ekintzak aipatzen ditu. Hiri mailan, GEU elkartea, Hala Bedi irratia... aipatzen ditu.

450. Euskaltegien garrantzia (GAS-025/031)

Euskaltegiak hezkuntza sistemaren porrota estaltzen ibili direla esango luke Oihanek eta euskara ikasteari orduak eta dirua eskaintzen diotenen meritua azpimarratzen du. Interesgarria litzateke eragile guztiak elkartu eta norabide berean eraikitzea.

451. Musikaren garrantzia 80. hamarkadan (GAS-025/032)

80. hamarkadan musikak garrantzia handia izan du Gasteizen. Musikarekin mobilizatu den belaunaldi bat egon da. Hertzainak, La Polla, Betagarri...

452. "Araban errebelde izatea, euskalduna izatea da" (GAS-025/034)

Oihanerentzat euskara mundua aldatzeko tresna bat da, iraultzarako tresna. Bere nortasunaren parte da.

453. Gasteizko Errementari kalean jaioa (GAS-026/003)

Gurasoak arabarrak zituen: aita Otazukoa eta ama berriz Apinaizkoa. 1922an jaio zen Peli, Errementari kalean.

454. Aita, oso abertzalea (GAS-026/006)

Aita arotza zuen Pelik. Luxuzko altzariak egiten zituen. Bost anai-arreba ziren. Izenei buruzko azalpenak ematen ditu. Aita oso abertzalea zen. Gerra aurretik hil zen.

455. Umetan Gasteizen euskara gutxi entzuten zen (GAS-026/007)

Bera umea zela Gasteizen euskara gutxi entzuten zen. Arrain-saltzaile bermeotarrei entzuten zitzaien "sardina freskue!" oihukatzen. Ekuadorren misiolari egon zenean, aldiz, kide gehienak euskaldunak ziren.

456. Gerra aurreko ikastola (GAS-026/008)

Gerra aurretik, umetan, ELAren Gasteizko ikastolara joan zen. Postas kalean zegoen hasieran, gero Zapatari kaleko etxe batera pasa ziren. Goizez eskola zen eta arratsaldez 'Gaztetxu Etxea', kultur ekintzak egiten ziren. Pilar Landaburu zuten irakasle.

457. 'Gaztetxu Etxea'-n antolatzen ziren kultur ekintzak (GAS-026/010)

Zapatari kaleko etxea, goizez ikastola zen eta arratsaldez 'Gaztetxu Etxea'. Kultur ekintzak egiten ziren bertan: dantza, mendi irteerak, antzerkia...

458. 1934ko Aberri Egunean dantza egin zuen (GAS-026/012)

1934ko Aberri Eguna Gasteizen ospatu zen eta Peli gazteak dantza egin zuen. Orduko mitinekin oroitzen da.

459. Gerra garaian, presoei laguntzeko taldeetan parte hartu zuen bere familiak (GAS-026/013)

Gerra garaian Peliren familiako zenbait kidek kartzela eta erbestea ezagutu zituzten. Gerraren amaiera aldera, preso zegoen jendeari laguntzeko taldeak antolatu ziren eta Peliren familiak parte hartu zuen: bazkariak prestatu, arropak garbitu... Tabakorik ez zegoen eta makina batekin egiten zituzten presoentzako zigarroak.

460. Urte eta erdi kartzelan (GAS-026/015)

Gerraostean, Franco Gasteizera etorri zen kongresu batean parte hartu eta Fray Frantzisko de Vitoriaren omenezko monumentu bat inauguratzera. Egun hartan, Pelik eta beste bost lagunek Senda pasealekua ikurrinaz bete zuten. “Erbesteratuei muga zabaldu”, “Presoak askatu” eta horrelako esaldiekin pegatinak ere ipini zituzten. Poliziak denak atxilotu zituen eta jipoitu egin zituzten, beraiek nahi zutena deklara zezaten. Peli urte eta erdi egon zen kartzelan.

461. Gerraosteko fusilamenduak eta debekuak (GAS-026/017)

Gerra garaian, Santa Isabel hilerrian jendea fusilatzen zuten. Irratia ezkutuan entzuten zuten, debekatua baitzegoen.

462. Euskara ikasten Andoni Urrestarazu 'Umandi'-rekin (GAS-026/018)

Euskara ikasten Andoni Urrestarazu 'Umandi'-rekin hasi zen, biak kartzelan zeudela. Kartzelatik aterata, haren etxera joaten ziren ikasten jarraitzeko. Etxea non zegoen kontatzen du. Hiru hilabetez Zarautzera joan zen Peli, Alfa enpresaren tailer batean lan egitera, euskara praktikatzeko. Ekuadorren misiolari egon zenean, aldiz, kide gehienak euskaldunak ziren, gipuzkoarrak eta bizkaitarrak.

463. 'Umandi'-k euskara ikasteko 100 ikasgai prestatu zituen kartzelan (GAS-026/019)

Andoni Urrestarazu 'Umandi' kartzelan ezagutu zuen. Hark euskarazko ehun ikasgai prestatu zituen, buruz koaderno batean idatzita. 1955ean 'Gramática Vasca' argitaratu zuen, gerra ostean argitaratu zen lehen euskal gramatika liburua.

464. Gasteizen kartzela eta kuartelak non zeuden (GAS-026/020)

Gasteizko kartzela Postas kalearen bukaeran zegoen. Gaur egungo 'Corte Inglés' dagoen lekuan kuartelak zeuden.

465. Gerra aurreko batzokia (GAS-026/024)

Gerra aurretik batzokia Gasteizen non zegoen azaltzen du. 1934ko Aberri Eguna han ospatu zuten.

466. Ekuadorrera misiolari (GAS-026/025)

1955ean Ekuadorrera joan zen, misiolari sekular modura. Han eskolak, etxeak, elizak etab. eraikitzen lagundu zuten. Neguan euri asko egiten zuen, udan berriz tantarik ez. Bideak asfaltatu gabeak ziren. Ezpata-dantzako kideak 'Acción Católica'-n sartu ziren eta haren bidez joan ziren misiolari. Peli arotza zenez, eraikuntzen obretan parte hartu zuen Ekuadorren.

467. Mosaikoak eta beirateak egiten (GAS-026/026)

Ekuadorren misiolari zegoela, arotzeria lanak egiten, Jose Mari Zunzunegi apaiz zestoarrak mosaikoak egitera animatu zuen. Euskal Herrira itzulitakoan, Urkiolako elizako mosaiko eta beirateak eraiki zituen.

468. Artisau lana, Urkiolan eta Ekuadorren (GAS-026/028)

Urkiolako elizako mosaiko eta beirateak eraiki zituen. Jose Mari Muñoz bilbotar abadeak egin zituen diseinuak. Ekuadorko mural handiak ere hark marraztu zituen eta Pelik eraiki. Mural hauek non dauden aipatzen du. Igeltsero eta arkitektoekin batera lan egiten zuten.

469. Gasteizko euskara (GAS-026/030)

Gasteizen azken urteetan euskara gehiago entzuten da. Bera umea zenetik asko aldatu da egoera. Pelik beti euskaraz egiten du.

470. Aitak Bonilla altzari fabrikan egin zuen lan (GAS-026/035)

Bere aitak San Pedro parrokiako kapera bateko lurra ipini zuen, Bonilla altzari fabrikan lan egiten zuela. Luxuzko altzariak egiten ziren bertan.

471. Etxean beharra zegoela eta lanean hasi behar (GAS-026/036)

Gerra hasi arte ibili zen ikastolan. Gero lanean hasi behar izan zuen, etxean beharra zutelako. Hotel batean mandatari gisa ibili ondoren, Agirre familiak Aiztogile kalean zuen aroztegian hasi zen lanean eta han ikasi zuen ogibidea.

472. Urrestarazu anai-arrebak (GAS-026/037)

Andoni Urrestarazu 'Umandi'-ren arreba, Maria Terese, bere ilobaren irakaslea izan zen. Eskolatik bota egin zuten abertzalea zelako. Araiakoak ziren Urrestarazutarrak. Andoni Madrilen zegoela hasi zen euskara ikasten. Erbestean egon zen, iparraldean.

473. Zinema 'Gaztetxu Etxea'-n (GAS-026/038)

'Gaztetxu Etxea'-n antzerkia gazteleraz izaten zen. Zinema ere bazegoen. Pelikulek soinurik ez zeukaten eta piano-jole bat egoten zen zuzenean musika jotzen.

474. Euskara 14 urterekin ikasi (GAS-028/001)

Hamalau urterekin euskara ikastea erabaki zuen. Euskaltzaindiak antolatutako eskoletan ikasi zuen, Manuel Iradierren. Moja eskolan ikasi zuen Blancak, dena gaztelaniaz. Hasiera batean, Frankismo garaia zela eta, gaztelaniak euskara erabat estalita zuen, eta ez zekien beste hizkuntza bat existitzen zenik ere. Hamalau urterekin euskara ikasten hasi zen 'Jalgi Hadi' programan, Ikasbidea ikastolaren bitartez.

475. Euskal Filologia euskaraz ikasteko erabakia (GAS-028/002)

Euskal Filologiako 2. promoziokoa da Blanca. Ikasketak hasi zituenean, ohikoena gaztelaniaz egitea zen, baina euskaraz egin zituen Blancaren taldeak. Ibon Sarasolari hasiera batean ez zion gauza handirik ulertzen, 'erromatarrak' hitza salbu.

476. Oraingo eta lehengo euskal filologia (GAS-028/003)

Euskal Filologian ez zeoen gaur dauden irakasgai asko, esaterako, dialektologiarik ez zuten, ez baitzen inor hori irakas zezakeenik.

477. Orotariko Euskal Hiztegian lanean (GAS-028/004)

Orotariko Euskal Hiztegian lanean aritu zen bederatzi urtez Donostian. Alaba izan, ezkondu eta unibertsitatean lan egitea lortu zuen.

478. Nor izan zen Añibarro? (GAS-028/005)

18 eta 19 mendeetan asko idatzitako gizona, bizkaiera batua sortzen saiatu zen. Eskuliburu bat eginagatik ezaguna, batez ere sermoiak eta testu erlijiosoak

479. Nor izan zen Mitxelena? (GAS-028/006)

Asko zekien gizona zen Mitxelena, baina apala oso. Berrogei bat urte zituenean hasi zen euskararen historiaren munduan murgiltzen, eta euskal filologia hutsetik sortu zuen.

480. Manuel Larramendi eta haren gramatika (GAS-028/007)

Aita Larramendi nor zen, El Imposibe Vencido, lehenengo euskal gramatika, eta hiztegia hiztegi hirueleduna.

481. Axularren 'Gero' (GAS-028/008)

Axularren 'Gero' lanaren edizio lan bat egin zuen Blancak. Axular nafarra zen, baina Saran eman zituen bere bizitzako urte asko. Liburu bakarra argitaratu zuen, lapurtera klasikoan.

482. Landucciren hiztegia (GAS-028/009)

1562an euskarazko lehendabiziko hiztegia egin zuen Nicolao Landucciok. Mitxelenak defendatu zuen Arabako euskalkia jasotzen duela, zehazki Gasteizkoa.

483. Arabako euskararen galera (GAS-028/010)

Arabako euskararen galera XVIII. mendean eman zela ondorioztatu da. Landazuriren testuetan dagoeneko lautadan galtzen ari dela jasotzen da. Bonapartek, ordea, bizkaieraren barnean sartu zuen. Koldo Zuazok hiru azpieuskalki proposatu zituen Arabako euskaran.

484. Olatu Indoeuroparrak eta hizkuntzak (GAS-028/011)

Indoeuropar olatu mordoa egon da historian zehar, hori demostraturik dago. Horiek hizkuntza indoeuroparrak hitz egiten zituzten. Europan hitz egiten ziren hizkuntza mordoa desagerrarazi zituzten.

485. Orotariko Euskal Hiztegiko lana II (GAS-028/012)

Orotariko Euskal Hiztegian lanean aritu zen, bildutako corpusa ordenagailura pasatzen.

486. Bi urterekin Mekoletatik (Otxandio) Gasteizera bizitzera (GAS-030/002)

Otxandioko Mekoleta auzoan jaioa. 2 urte zituenean familia Gasteizera joan zen bizitzera. Legutioko urtegia egin zutenean hartu zuten erabakia. Aitak esnea saltzen zuen Gasteizen. Hiru arreba eta anai bi ziren; zaharrenak Venezuelara joan ziren.

487. Umetako Gasteiz, oraingoa baino askoz txikiagoa (GAS-030/004)

Umetako Gasteiz nolakoa zen kontatzen du: landa-eremua gertu zuten, hiria askoz txikiagoa zelako orduan. Gurasoek denda txiki bat zuten, esnea saltzeko. Udan Mekoletara joaten zen.

488. Gasteizko euskaldunen tabernak, umea zenean (GAS-030/005)

Amak ez zekien erdaraz, gaizki moldatzen zen. Otxandioko jendea ibiltzen zen lekuetan mugitzen ziren gurasoak. Otxandiano taberna, Morga-ola jatetxea, Albeniz taberna, Bar España...

489. "Desberdina" sentitzen zen, Gasteizen euskalduna izateagatik (GAS-030/006)

"Ezberdinak" izatearen sentsazioa izan zuen beti, bertakoa ez izatearena. Mekoletakoa sentitzen da. Amari erdaraz egiteko esaten zien aitak, ikas zezan. 60ko hamarkadan hasi ziren mezak euskaraz ematen, eta hara joaten ziren gurasoak. Eskola erdaraz zen. Ez zeukan euskaraz norekin egin, bere adineko umerik, eta asko galdu zuen euskara.

490. Umetako jolasak eta entretenimenduak (GAS-030/007)

Kalean hazitakoa da, bere belaunaldiko denak bezala. Etxolak egiten zituzten, kalean jolastu... borroka egiten zuten beste ume batzuen kontra.

491. Eskolan onartu ez, erdaraz ez zelako ondo moldatzen (GAS-030/008)

Eskola-garaia traumatikoa izan zen. Ez zekien ondo erdaraz, eta Jesus Obrero ikastetxean ez zuten onartu. San Jose ikastetxe pribatura eraman zuten orduan (gero San Viator), fraideekin. Etxean disgustu handia izan zuten.

492. San Jose ikastetxean, fraideekin (GAS-030/009)

San Jose ikastetxean ere desberdina sentitzen zen, gaztelania menderatuta ere. Fraideek zigorrak jartzen zituzten, eta ez zuen ondo pasatu. 17 urtera arte ibili zen han. Irakasle ikasketak egin zituen gero.

493. Gasteizko kultur giroa, 16-17 urte zituenean (GAS-030/010)

16-17 urte zitueneko kultur giroa. Euskal giroa bilatzen zuen beti, eta giro abertzalean murgildu zen: mendira joan, Kutxilleria kalean euskaraz kantatu... Frankismo amaieran Manuel Iradier elkartea zen erreferentzia bat. Dantza taldeak. Atxiloketa asko izaten ziren.

494. Musikaren munduan murgilduta, gaztetxotatik (GAS-030/011)

Amaren erabakiz, 11 urterekin soinua jotzen ikastera bidali zuten, Cecilio Lopez de Luzuriaga irakaslearekin. Musikaren mundua zen berari gustatzen zitzaiona. Coro Arabakoek euskaraz kantatzen zuten; Amets taldea berritzailea izan zen sasoi hartan.

495. Euskararen aldeko borroka: lehen euskarazko klaseak (GAS-030/012)

Euskarazko klase batzuk ere hasi ziren JOC-en, Patxi Bisquert irakaslearekin (Patxi Manterola). Bera ere ibili zen, baina ez zuen iraun: atxiloketak izan ziren. Politika eta euskara nahastuta zeuden.

496. Lantzale musika-taldean, soinua jotzen (GAS-030/013)

Lantzale dantza-taldeak adar musikala ere bazuen. Irakasle ikasketak egiten zebilela, agustindar izandako gazte batzuk ezagutu zituen: Juanjo Uranga, Pako Izagirre, Xabier Madina, Karmen Txintxurreta... Lantzale taldean Jeni Prietok kantatzen zuen. Soinua jotzen hasi zen bertan.

497. Quinteto Egia taldean, Patxi Villamorrekin batera (GAS-030/014)

Patxi Villamor ezagutu zuen Irakasle Ikasketak egiten ari zela. Gorka Knör musikaria ere bai, Ez Dok Amairukoa. Kantu-lehiaketa batera aurkeztu zen, euskaraz kantatzen. Villamorrekin eta beste batzuekin (bat Zaramaga auzokoa: hara euskaldun asko joan zen bizitzera, lantegi asko ipini zituztelako) Quinteto Egia sortu zuten, horretarako. Ez zuen asko iraun. Patxi Villamorrek bere kabuz jarraitu zuen kantuan, eta haren diskoan parte hartu zuen.

498. "Baga Biga Higa" sentikaria, Gasteizen (GAS-030/015)

Irakasle Ikasketak egiten ari zen sasoian, Teatro Floridara Ez Dok Amairu joan zen, "Baga Biga Higa" emanaldiarekin. Txundituta geratu zen. Politikoki troskismoarekin lerrokatu zen, LKI eta eremu horietan.

499. Arrasateko ikastolatik Burgosera, soldadutza egitera (GAS-030/016)

Irakasle ikasketak bukatuta, Arrasateko ikastolan izan zuen lehen lana. Atxilotu egin zuten, eta kartzelaldiaren ostean, soldadu bidali zuten, Burgosera. Han ezkerreko militanteen eskuetan zeuden koartelak. Harrera-luntxa egin zieten, eta "banda"-koa izan zen hasieratik.

500. Soldadutzan, komite antifrankistan (GAS-030/017)

Soldadu Komitean egon zen, fitxatutako beste antifrankista guztiekin batera. Franco hil zenean, soldadutza egiten zegoen. Martxoaren 3ko sarraskia gertatu zenean ere bai.

501. Soldadutzatik bueltan, berriz irakasle lanetan (GAS-030/018)

Soldadutzatik bueltan, hezkuntzan hasi zen berriz: Gernikan. Euskara ematen zuen. Hainbat lekutan ibili zen gero, Gasteizen besteak beste. Funtzionarioa zen, eta eszedentzia hartzen saiatu zen, Ertzainak taldearekin hasita zeudelako. Ez zioten utzi, eta lana utzi zuen.

502. Aktibismo politikotik aktibismo musikalera (GAS-030/019)

Franco hil zenean, desenkantua iritsi zen, "trantsizio faltsua"... ustezko demokrazia horretan, ezkerrak indarra galdu zuela dio. Ekintzarako aukerak mugatu egin ziren, eta aktibismo musikala egitea erabaki zuen.

503. Xabier Amurizarekin, bertso musikatuekin herriz herri (GAS-030/020)

Gernikan zegoela, Xabier Amurizarekin kolaboratzen hasi zen, lehenengo bertso musikatuen proiektuan. Hiru musikari ibiltzen ziren Amurizarekin herriz herri, ikuskizun harekin. Bat-bateko bertsoak eta aurrez prestatutakoak nahasten ziren.

504. Kantautoreekin eta Ruper Ordorikarekin (GAS-030/021)

1980an Patxi Villamorrekin ere ibili zen, kontzertu batzuetan, eta Gontzal Mendibilekin ere bai... Eta Ruper Ordorikak bere diskorako fitxatu zuen.

505. Hertzainak taldearen hasiera: troskista taldea (GAS-030/022)

Xabier Montoiarekin Hertzainak proiektua sortu zuen. Milintantismorik ezagutzen zuten elkar, troskismotik. Hasieran batu zirenak ez ziren musikari onak, eta jende trebatuagoa topatzen hasi ziren.

506. Gasteizko hazkundea eta euskararen prestigioa (GAS-030/024)

Gasteiz hazkunde azkarrena izan zuen Europako hiria izan zen. 40.000 biztanletik 100.000ra igaro zen 20 urtean. Giroa ere aldatu egin zen. Euskararen prestigioa berreskuratzeko gogoa pizten da gizartean.

507. 80ko hamarkadan, gazte alternatibo asko Gasteizen (GAS-030/025)

80ko hamarkadan, euskara berreskuratzeko gogoa piztu zen Gasteizen, eta Hertzainak rock taldea euskaraz egiteko ideia ere testuinguru horretan sortu zen. Gazte asko zeuden, alternatiba gosearekin: gaztetxea sortu zen, tabernetan rock musika jartzen hasi ziren...

508. Tabernetako erreferentzia musikalak (GAS-030/026)

Gasteizen tabernetan entzuten zituzten musika-taldeei buruz hitz egiten du. Punkaren mugimendua 80ko hamarkadan iritsi zen.

509. "Tribuen sorrera" ahalbidetzen zuen giro musikala (GAS-030/027)

Dirurik ez zutenez, batera entzuten zuten musika. Esperientzia konpartitua zen. "Tribuen" sorrera ahalbidetzen zuen horrek. Arazo kolektiboei erantzun kolektiboak ematen zizkieten (gaztetxea...). Aurreko militantismoak ere elkarlanera ohitu zituen. Gasteiz alternatiboa sortu zen.

510. 80ko hamarkadan, fenomeno interesgarriak: fanzineak eta rock-taldeen eztanda (GAS-030/028)

Fenomeno interesanteak sortu ziren: fanzineak, aldizkariak, musika-taldeak... 80ko hamarkada oso aberatsa izan zen. Punkak musika-taldeak sortzeko erraztasuna ematen zuen, ez zelako trebetasun handirik behar. Cicatriz taldea. Rockaren eztanda: La Polla, Zarama, Barrikada...

511. Hertzainak musika-taldea sortzeko ideia (GAS-030/030)

Hertzainak sortzeko ideia nola sortu zen. Punka agertu zenean, amorrua adierazteko bide bat aurkitu zuten, musika aldetik egingarria. Londresera joan ziren, giroan murgiltzera. EAJri kantatu nahi zioten, eta euskaraz izan behar zuen. Lehen 'fan'-ak erdaldunak ziren. Taldea zergatik desagertu zen.

512. Xabier Montoia, euskara eta punka (GAS-030/032)

Punka perfektua zen beren taldearentzat. Xabier Montoiak horretarako ikasi zuen, punk talde batean kantatzeko. Sei hilabetean ikasi zuen. Patxi Villamorren kasua ere antzekoa izan zela dio.

513. Hertzainak taldearen izena (GAS-030/033)

Hertzainak taldearen izena nondik datorren azaltzen du. The Police talde ingelesa.

514. Hertzainak taldearen lehen partaideak (GAS-030/034)

Hertzainak taldeko lehenengo partaideak. Lehen kontzertua. Delfo eta Kike.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-28

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com